

## Javier Sadaba, filosofoa: “Zoriona oso zaila da baina denoi interesatzen zaigu”



Berezkoa du gizakiak ongi bizi nahia. *Erraz bizi* denean ere ez ei da bere buruarekin guztiz konforme, zeharo zorionsu. Erljioaren nahiz filosofiaren bidetik pertsonari zorion zainak marrazten saiatu dira pentsalariak ahaleginean. Orain baino lehen ere arlo horretan jarduna da Javier Sadaba filosofoa hainbat artikulua, hitzaldi eta argitalpenetan. Oraindik orain, berriz, koska bat estutu du *La vida buena* (Bizitza ona) liburuan.

6. or.

## Eztabaida: Erljioa eskolan

Bilbo, Gasteiz eta Donostiako gotzainek helegitea jarri zioten joan zen maiatzean Eusko Jaurlaritzari, ez duelako aukeratu eskoletan Erljioa irakasgaiaren ordezkoko hautazkorik. Erljioa eskaini beharreko irakasgaia da, baina hautazkoa eta ikasi nahi ez dutenek ez dute ordezkorik hartu behar. Gotzainen esanetan, neurri horren iragartze hutsak erljio eskoletan matrikulen jaitsiera ekarri du. Auziak irakasgaiaren inguruko eztabaida piztu du. Eskolan irakatsi beharreko gaia al da Erljioa?

14. or.

## Erreportajea: Liburu elektronikoen iraultza?

Liburu elektronikoez irakurtzeko eran iraultza ekarriko ei dute, hala diote behintzat mundu honetan aritzen diren editore, liburu saltzaile eta idazleek. Puri-purian dago gaia, baina gutxiengo batek soilik izan du esku artean irakurgailu elektroniko bat. Abantailak asko dira: ehunka liburu gailu txiki batean eramateko aukera, eduki berriak saretik jaisteko erraztasuna, gero eta lan gehiago hizkuntza gehiagotan... Baina liburu klasikoaren xarmarik ez omen dute. Irakurleak bereganatuko ote ditu teknologia berri honek?

17. or.



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

11

Lege itzulpenetako  
koaxka batzuk

Jesus Mari Agirre


20

DUDANET  
zerbitzua,  
hizkuntza-kontsultak  
on line

25

Che-ren  
kapilauarena  
Miel A. Elustondo









PAPER  
BIRZIKLATUA

**Zuzendaritza:**  
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

**Koordinatzailea:**  
Xabier Amatria

**Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:** Itxaropena S.A.

**Ilustrazioak:** Concetta Probanza

**Zenbaki honetako lanbideak:**  
Jesus Mari Agirre, Bego Aierdi, Kaxildo Alkorta, Jon Alonso, Xabier Amatria, Jon Arizkun, Urtzi Barrenetxea, Ainhoa Beola, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Irene Fernández, Iñaki Holgado, Karmele Igartua, Luma, Begoña Minaur, Arantza Quecedo, Amaia Ugarte-mendia

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ  
aldizkarian argiratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ  
aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritzirik.

ADMINISTRAZIOA  
EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. [www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)

PERTSONAIA

# Alfonso Sastre:

## “Antzerki eragileek bazter utzi dituzte gai filosofikoak”



**Alfonso Sastre (Madril, 1926), poeta, antzerkigile, saiakeragile, gidolari... Espainiako antzerkigintzak duen izen handienetakoa da gaur egun. Inplikazioaren Antzerkiaren aldekoa, Tragedia konplexuaren eta Gizarte Agitazioko Antzerkiaren abiarazlea da. Hainbat sari eta merezimendu jaso ditu. Eva Foresten alarguna, bien bizitza eta lanak bil-tzen dituen webgune ongi hornia dute Interneten Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraginez ([www.sastre-forest.com](http://www.sastre-forest.com)).**

**Zure lan askoren artean bada bat, 1986koa, Carabanchelgo kartzelan idatzia: Ez da pale egiteko oldua...**

Nire bizitzan askotan egin dut barre eta esker-rak horri negar egiteko garaiak ere hobeto eraman izan ditut. Beste momentu batzuetan, berriz, negar ez egiteagatik barre eginez irten naiz onik. Barreari buruz zerbait baino gehiago idatzia naiz liburukote mardul batean (*Ensayo general sobre lo cómico en el teatro y en la vida*). Nik esatera, gaurko egoeran negar ez egitearren egiten dugu barre.

**Zure antzerkigintzak irri eginaraztea ez baina salaketa izan du helburu...**

Hasieran barrerik gabeko antzerkia idazten nuen, tragedia ilun tristeak. Geroago, tragedia konplexuak deskubritu nituen, barre eragin arren –algara ere bai–, benetako tragedia izateari uzten ez diotenak. Injustiziak salatzea kasik hasieratik egon da presente nire lanean, nik esango nuke antzerkiak ematen dituen aukera politikoak deskubritu nituenetik.

**Salaketa aipatu duzu zure antzerkiaren helburuetan. Konpromisoaren inguruko galderak erantzun beharrean zaude beti edo gehienetan.**

Nik gurago dut *inplikazio* hitza erabili. Uste dut autoreok garaiko bizitza sozial eta politikoan *inplikatu* beharra dugula baina ez, derrigor, geure lan guztietan. Nik esperientzia ludikoak edo esperimentu formalak egiteko dugun askatasuna errebindikatu ohi dut. Oro har, gure obrek giza ekintza adierazi beharko luketela, praktikoak ez luke hiltzorian dagoena ezkutatu beharko, eta hiltzorian dagoenak giza praxi iraultzaile baten aukerak ere ez, “bestelako mundu” baten bila ibiltzea. Ez da ezinezkoa, baina gizarte kapitalistak ez du egiten uzten, gaur gaurkoz.

**Zertan da antzerkia gaur egun? Aktore-aktoretasak telebistan ari dira gehienbat.**

Sistema huts egiten ari da, eta sistema aldarazteko filosofia egokirik ez izatea. Antzerki eragileek bazter utzi dituzte gai filosofikoak. Haien utzikeriak eta nartzisismoak oraingo miseria etiko eta estetikoak ekarri ditu. Agertokiak pailazo sudurrez, saltinbankiz eta dantzari-z beteta daude: lanbide duinak izanagatik ere ez lukete hainbeste leku hartu behar. Gainerakoan, nik esango nuke talde dramatikoak saltinbanki talde baino areago izan beharko lirakekeela. “Desegituratuta” ageri dira, sendotuko dituen “super helbururik” gabe. Zer gertatzen da? Antzerki asko egiten dela, baina bertan nekez gertatzen da merezi duen zerbait.

**“Tragedia konplexua” aipatu duzu ares-tian. Zein da haren etorkizuna, zure Gizarte Agitazioko Antzerkiarena?**

Tragedia konplexuak ildo bideragarria du, barre egiten den tragediak, batik bat. Gizarte Agitazioko Antzerkiari dagokionez, berriz, nahiago nuke XXI. mendeko sozialismoaren zerbitzuko antzerkia egingo lukeen taldea sortuko balitz, arlo filosofiko eta politikoan Latinoamerikan gertatu den bezala.

**Zer diozu antzerkiaren Interneten eta teknologia berrien garaian?**

Nork bere bitartekoekin lan egiteko leku txikiak dakartza Internetek. Teknologia berriak laguntzaile dira, (Erwin) Piscator-ek bere garaian zinemarekin egin zuen bezala: bereganatu, ez hartan urtu.

**Ezkerreko intelektualak falta direla esan izan duzu inoiz...**

Luze joko luke horretaz jarduteak. Idatzi ere egin dut horretaz, *La batalla de los intelectuales* liburuan eta. Ez ezkerreko intelektualak, ez politikariak... Oraingo agintariak ez didate barrengaririk ere ematen eta are gutxiago pizten didate haien ginean ezer idazteko gogoia.

**Jon Arizkun**  
Kazetaria

## Progenerikoak

Zer ote dira? Euskaraz izen propioetatik ateratako hitz asko ditugu, txantxetan, eta bestela ere bai, nolako gizonaedo edo halako emakumezkoari, edo dena delako animalari, gauzari zein egoerari, janzten dizkiogunak. Horiek dira izen progenerikoak. Esate baterako:

*Joxe langile.* Jatetxe bateko lankide guztiak lanean jo eta ke ari ziren batean, haien lankide-edo bat, betaurrekoduna –hala zen eta–, patxada ederrean zigarrotxoak erretzen eta edonori esplikazio luzeak alai ematen *zegoen*, eta, hondarribiar batek hura ikusita, “Zer egiten du *Joxe langile* horrek” esan zidan. Ez zuen esan *Bartolo langile* ez *Martin langile* ere; eta lankideak ez zuen *Joxe* izena.

Patata bezalakoa da *Mari*: zerekin egosi, haren gustua bereganatzen du. Ugaria: *marimutil*, *marigizon*, *marizikin* eta *marikotxina* edo *marinarratz*, *mari gonagorri* edo *marigorringo* (mamorroa), *mari apain*, *mari harro*, *mari bihurri*, *mari matraka*, *mari jostari*, *mari maistra*, *mari purzil* edo *maribidetak*. Baita *marikontra* ere; gizonaedo bada, *martin-kontra* edo *martinkoska*.

*Martin geldi* (geldoa), *martin olaso* edo *martin puntxo* (harroa, handiustea).

*Musalen*, *barrabaskeria*, *Judasena* egin, *Madalena*.

*Matxinetik* datorkigu *matxinada* eta *Zamakolatik zamakolada*, herri-altxamendua edo jazarraldia adierazten duten hitzak, etxe batekoak biak.

*Kristo*. Gu gaxteago ginenean *kristo(re)nak* julapak ziren, egurra, ederrak, alegia, beti pluralean, asko, anitz. *Kristo(re)nak* eman, *kristo(re)nak* hartu, astindua betiere. “*Kristorenak*, *Kristorenak* gera, *Kristorenak* hartuta atera gera” gogoan? Urteak pasa ahala asko zabaldu diote esanahiaren eremua: *kristoren* jaia edo *kristoren* neska...; singularra ere eman diote. Antzeko esanahikoa da *senperrak* edo *senperrenak* ikusi, gorriak ikusi, alegia, baina ez dira entzuten *senperren estropada*, *senperren afaria* eta horrelakorik.

*Petiri Santz*, “jan da jan” eta ase ezina, gaztelaniazko *Car-pantaren* senidea.

*Pepelerdo*, *inpernuko Patxi*, *pellokirten*, *pellokeriak*, *pernandokeriak*, *nolako Perutxo* halako *Maritxo*...

Nahikoa? Baina ekarri nahi nuke, bada, txori izen bat. Euskaltzaindiaren hiztegiak gure arteko txorien txorienari bi izen aitortu dizkio: kurloia eta txolarrea. Txori horrek, ia beste guztiak bezala, zein herri, halako izena du: *artatxori*, *eletxori*, *elitzxori*, *etxetxori*, *torretxori*, *hormatxori*, *garitxori*, *lastatxori*... Eta hau da esan nahi nukeena, niri egokiena zumaiarrena iruditzen zaidala: *patxizarra*. Bete-betekoa da: *Patxi* eta *zaharra*. Esaten dute kalonjeen antza dutela *patxizarra* harrek, zergatik-eta, bi izaki horiek direlako gaizkien kantatzen dutenak, baina jan, gehien berek jaten dutelako. Kalonjeak zer diren?

Azpeitia-Azkoitiako *Inpernuko Txikito* ere esanguratsua da, sasoi batean pilotari asko *Txikito* zen-eta (Artadiko, Iraetako, Azkoitiko...). Hori bai dela izenak ingurumarira egokitzea.

Euskaraz izen propioetatik ateratako horrelako hitz asko dugula esan dut hasieran. Euskal museotan aitzurrak eta aizkorak-eta daudela-eta, ez du esan nahi tresna horiek euskaldunenak eta ez beste inorenak direnik, ez horixe. Progenerikoei dagokionez ere gauza bera esan beharra dugu. Gure inguruko hizkuntzetan asko eta asko dira, geurean baino gehiago ere bai; hauek batzuk:

Perico el de los palotes, Celestina, Bartolo, Maricastaña (= la reine Berthe), Perillán (Pedro Illán), Perogrullo (= monsieur de La Palisse), Sambenito, Antón Perulero, Cervantes, Cantinflas, Charlot, Juan Lanás (= Jean Foutre), Juan Palomo, don Juan, damajuana (dame-jeanne), Adán, Pedro Botero (Old Nick)... Musalén-Mathusalem-Methuselah (zaharra)...

Zenbat horrelako egongo ote dira Afrikako hizkuntzetan? Eta Txinan?

Polita, politena ziur asko, horrelakoen jatorria da: zer zela eta non sortu ziren, nondik nora pasa ziren... Hor ba, lantxo bitxia, nahi izanez gero.

**Kaxildo Alkorta, laguna**

## JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN-BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



# Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana Donostiako Udalean

## IV. Plangintzaldia

**Donostiako Udalak 2009ko apirilaren 17an egindako bilkuran, *Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana Donostiako Udalean - IV. Plangintzaldia (2008-2012)* onartu du.**

Orain arteko jardunari esker, gero eta gehiago gara euskara ezagutzen dugun langileak, nahiz eta zer egin handia dugula onartu beharra ere badagoen, herritarrei zerbitzua euskaraz ere emateaz gainera, udal langintza euskaraz ere burutzeko lanean. Horregatik, IV. Plangintzaldiaren helburua ezagupe- netik benetako erabilera igarotzea da, hau da, administra- zioak eta langileek euskalduntze eta alfabetatze prozesuetan egindako ahaleginari etekina ateratzea eta udal administra- zioaren esparru guztietan euskararen erabilera areagotzea.

Azken finean, administrazio elebidun bat lortu nahi baldin badugu, euskarak eta gaztelaniak berdintasunean garatzeko aukera izan behar dute, eta herritarrei aukeratzen duten hiz- kuntzan artatuak izateko berme guztiak eskaini behar diz- kiegu.

Plangintzaldiaren xede nagusia da Donostiako Udalean hiz- kuntza ofizialen berdintasunera jotzea, euskara, beraz, lane- rako hizkuntza izatea bere osoan: zerbitzu-hizkuntza herritarrekin, harreman-hizkuntza beste administrazioekin eta Donostiako Udal barruko lan-hizkuntza.

Onartu berri den plangintzaldiak hiru oinarri nagusi ditu:

- 1. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak:** udal-jar- duera, prozedura eta eguneroko eginkizunetan bi hizkun- tza ofizialak nola erabili behar diren xehetasun osoz zehazten da. Donostiako Udalaren administrazio jarduna- ren esparru guztietan bi hizkuntza ofizialak nola erabili behar diren zehazten da: ahozko eta idatzizko komunika- zioetan, itzulpenetan, langileen prestakuntzan, programa informatikoetan, Internet eta intraneten, hizkuntza pai- saian, publizitatean, diru laguntzak esleitzerakoan, kon- tratazio administratiboetan, bide publikoetan egiten diren jardueretan eta lagatako lokaletan.
- 2. Hizkuntza ofizialen erabilerarako batzordeak:** Udale- ko zuzendaritza bakoitzak bere erabilera batzordea sortu- ko du. Batzorde horiek zuzendaritzari egokitutako helburuak zehazteaz gain, hauek lortzeko normalizazio ekintzak bideratu eta hauen jarraipena egiteaz arduratuko dira. Batzordea zuzendaritza bertako eta Euskararen Udal Patronatuko ordezkariak osatuko dute.
- 3. Herritarren hizkuntza eskubideen berme osoa:** Donos- tiako Udalak herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar ditu. Alde horretatik, bereziki zainduko du herrita- rrek Udalarekin harremanetan jartzeko egiten duen hiz-

kuntza aukera. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko bideak jarri behar dira hizkuntzen benetako berdintasun orekatara iristeko, eta hori lortze aldera, bere- ziki zainduko da herritarrei lehen atentzioa ematea, herri- tarrak berak hautatutako hizkuntzan eta inolako deserosotasunik eragin gabe Udalarekin harremana izan dezan. Horrela bada, jendaurreko izaera duten Donostiako Udaleko lanpostu guztiek derrigorrezko hizkuntza eskaki- zuna dute. Era berean, derrigorrezko hizkuntza eskakizu- na ezarria dute gizarte izaerakoak izanik haur eta gazteei zuzendutako zerbitzua eskaintzen duten ataletako lanpos- tu guztiek.

Bestalde, IV. Plangintzadiaren prestaketa prozesuan hizkun- tza eskakizunak eta derrigortasun datak aztertu dira eta hain- bat aldaketa egin dira. Funtzio bera betetzen zuten hainbat lanpostuk hizkuntza eskakizun desberdinak zituzten, eta bat egitera jo da horietan, bigarren hizkuntza eskakizunetik hiru- garrenera igota, eta hirugarrenetik laugarrenera igota, batez ere administrari, legelari eta goi perfilen kasuetan. Horren ondorioz eta planak dakarren indizean oinarrituta, gaur egun Udaleko lanpostuen %58ak dauka ezarria derrigortasun data.

Plangintzaldi honetarako Euskararen Udal Patronatuak era- kunde autonomiadun guztientzat egingo duen proposamena Udalerako planteatu duen modu berean egingo du. Erakunde autonomiadunek ere, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuz, euskara, gaztelania bezala, zer- bitzu hizkuntza izango dela bermatu beharko dute erakunde osoan; ekintza-eremu desberdinetan hizkuntza irizpideak aplikatu beharko dituzte eta euskara lan eta harremanetako hizkuntza izateko neurriak hartu beharko dituzte.

Zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagokienez, berriz, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak hizkuntza normalkun- tzarako neurriak hartzeko beharra aurreikusten du. Honela, aipatu dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian jasotzen denaren arabera, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, behartuta daude bi hizkuntza ofizialak zerbitzu hizkuntza modura bermatzera eta, ondorioz, helburu hori lortzeko IV. Plangintzaldian jasotzen diren jarraibideak betetzera.

**Ainhoa Beola**

**Hizkuntza Normalkuntza zinegotzia**

## Javier Sadaba, filosofoa:

**“Zoriontsu izateko osagaiak eskura ditugun arren, ez dugu kasurik egiten”**



Erraz bizitzeak ez du, inondik ere, gizakia gogobetetzen. Besterik behar du zorioneko izango bada: bizitza ona, alegia. Eguneroko plazerak ase ez ezik, dimentsio etiko edo morala du gure bizitzak. Biek gure baitan bat egin dezaten lortzen dugunean gara zorioneko, iritsiak ditugu ongizatea eta bizi kalitatea. Zorionaren hamaika alderdiz ari da Javier Sadaba Garai (Portugaleta, 1940) ondoko elkarrizketan, azkeneko liburua aitzakia.

Zorionaren askotariko aurpegiak erretratatu ditu filosofoak *La vida buena. Cómo conquistar la felicidad* (Bizitza ona. Nola konkistatu zoriona) liburuan. Zorionaren mugak, eguneroko zorion printzak, zorion bideak eta beste azaldu ditu bertan. Zorionaz ari delarik, bizitzaz eta heriotzaz, gaur egungo gizarteaz, politikaz eta etorkizuneko gizakiaz ere hausnartu du.

**Zergatik da gaur egun hainbeste formula, eskuliburu, panfleto, liburu eta liburutto, hitzaldi, solasaldi eta bestelako, denak ere “ongizatea” eta “zoriona” iristeko bidea eskainka?**

Hor bi jarrera ere badira. Jenderik finenak ezetz dio, ez dela zorionaz hitz egin behar, plebeioen kontua dela. Hartu, esaterako, Simone de Beauvoir: “Zorionaz mintzo denak ez du historiarik”, dio. Filosofian ere izan da joera bat zorionetik aparte ibili behar dela dioena, “gainera, nork bere zoriona du, eta izan liteke oso zitala, edota oso txepela”. Bestalde, ordea, beti jardun dugu gizakiok zorionaren inguruan galdezka. Grezia zaharra gogora ekarri besterik ez dago, nola ibili ohi ziren filosofoak –edo erdizka filosofo zirenak, nahi baduzu–, jendeari zoriona predikatzen, arimaren edo barruko bakea, etab. Hortaz, batzuk zoriona mespretxatzen, besteak hura kalean aldarrika.

**Zer dator bi bide horietatik?**

Batetik, zorion kontzeptua zehaztea oso zaila zaigula, gai konplexu eta bihurria delako. Bestetik, denoi ere interesatzen zaigula.

**Zer dute ikustekorik “bizitza onak” eta erraz bizitzeak?**

Oinarrizko galdera da hori. Alegia, bizitza ona eta erraz bizitzea, biak konbinatu beharra dago. Kontzeptu ezberdinak dira, baina elkar osatzen dutenak. Erraz bizitzea –eta ez da gutxiespen-terminua, hitzean eta hotzean erabiltzen

den hitz jatorra baino–, plazerez osaturik dago, berehalako atseginez, ahaleginik egin beharrik gabe iristen ditugun horiez; paisaia bati begira egotea, basoerdi bat ardo on edatea, musika ona entzutea... Plazeren mailarik pasiboena da, eta aberekoiena; eta, ulertzekoa da, azken finean abere gara-eta. Bizitza ona, aldiz, besterik da, urrats bat harago dago, ez da plazeretara mugatzen, morala du aintzako-tzat hartzen. Hain zuzen, moralaren bidez bestelako giza asebetetzeak iristen ahal ditugu.

**“Gizarteak eta naturak ematen dizkiguten estimuluei erantzuten jakingo bagenu, hobeki biziko ginateteke”**

**Adibidez?**

Adibidez, egin beharra ondo egitea. Egin beharra ondo egiteak lagun hurkoarekiko betekizuna zuzen bete dugula esan nahi du, gure kontzientzia lasai dugula, ongia sustatu dugula... Horrek gu geu ere ondo sentiarazten gaitu komunitateko gainerako kideen artean. Nire irudiko, bizitza ona eta erraz bizitzea, biak batuko bagenitu, zorion mailarik handiena lortuko genuke. Plazerak bai, baina bizitza onaren barruan sarturik, etikari loturik, etika bera zoriona ere baden neurrian, baina zorion arauemailea, ez berehalakoa.



## **Zorionaz ari eta “tarteko zoriona, giza zoriona, zorion mugatua”... aipatzen dituzu zuk... Ez duzu sinesten zorion absolutua badenik.**

Ez dut sinesten, ez. Fededuna banintz –izan kristaua, izan islamdarra...–, sinetsiko nuke bidearen amaieran Jainkoa ikusi eta berarekin bat egingo dugula. Baina sinestuna ez naizenez, ezin dut irudikatu ere egin. Ez dut ateismoa aldarrikatzen, baina bai agnostizismo sakon bat. Ez dakidanik ez dakit, dakidana besterik ez, eta nik dakidanez zorionak tempoak ditu –hagitz tempo laburrak–, muga mordoa, eta kristalezko matraila, esan ohi dudanez.

### **Nola indartu kristalezko matrail hori?**

Asko dira bideak. Osagai asko dira jokoan eta, lehenetarik bat, osasuna. Ez alferrik dio esaera zaharrak: “Osasuna, munduko ondasuna”. Osasuna, batetik opari bat da; bestetik, nork bere burua zaintzen du: hor dira dietak, higieena, teknologia berriak... Osasuna nahitaezkoa da. Ondoren, sentiberatasuna eta inteligentzia ditugu: gizarteak eta naturak ematen dizkiguten estimuluei erantzuten jakingo bagenu, hobe ki biziko ginatkeela uste dut. Oso itsu bizi gara. Zoria ere hor da, hor da, baina hari lagundu beharra dago, beti biktima gerta ez gaitezen. Beste osagai bat, oinarritzkoa, nahi izatea da.

### **Nahi izatea?**

Bai, zorionsu izan nahi izatea. Horrek bidea egitea eskatzen du. Lortu egiten da. Horretan indar handia egiten zuen Aristoteles filosofoak, gauzak ez datoz zerutik mana bezala, lana beltz egin beharra dugu nork bere gaitasunen arabera. Alferrik saiatuko naiz ni eskulturagile izaten, oker baino gaizkiago egingo nuke-eta. Gogoan hartu beharra dago, bestalde, gauza guztiak ekintza errepikapena direla, behin eta berriz eginez lortzen dela zer bat ondo egitea. Ahalegina egin beharra dago, ez ahaleginagatik beragatik, bidearen amaieran dagoen onuragatik baino.

### **Esana duzu zorionsu izan nahi horretan lagungarri ditugula isiltasuna, musika, irakurketa...**

Hiru gauza diferente izanagatik ere, bata bestearen ondoan daude, hurrean. Uste dut irakurketak luze iraungo duela, Interneteko aurrerapen guztiak gorabehera. Oso harreman estua sortzen da irakurlearen eta idazlearen artean: gozamina, eztabaida, argudio ematea... Oso harreman bizia, inondik ere. Liburu batek odaiertza zabaltzen dizu, estereotipoak apurtu... Jakina, liburua txarra bada, onena bertan uztea da. Pascalek zioen logelak bakarrik egoten ez jakitea dela zorigaitzaren lehen urratsa. Hori esatean, liburua zuen gogoan. Umetatik, irakurketaren aldeko apustua da gizarte –erdizka bada ere– zorionsu batek egin beharko lukeen lehen gauzetarik bat. Berdin esan nezake musikari buruz, arterik gorena da-eta. Schopenhauerrek esaten zuenez, “Gozamenik handiena da”, eta ez nuke ezetzik esango.

Naturak soinu konbinazio eder hori eman badigu, ez du merezi betiko tzunpatzuna entzutea. Musikagile handiak ezagutu, herri-musika, folklorea... lagungarri dira. Isiltasunari dagokionez, isiltasuna bai, baina ez “hau eta hura bitartean”. Isiltasuna ez da aspermena. Berbontzikeriaren kontrakoa dut isiltasuna: esan behar dena esan ondoren, ez dago zertan matrakan jardun: isildu eta kito.



### **Irudi luke gizartea zuk marrazten duzun zorionaren bidean ez baina kontrara ari dela arraunean...**

Bai, kontrakoak agintzen du: presak, arrakastak, itxurakeriak –eta ez izateak–, aipua erabiltzea zer esan nahi den jakiteke, bestek esan duena errepikatzea... Zorionsu izateko osagaiak eskura ditugun arren, ez dugu kasurik egiten. Arrazoi izango du Marcusek: “Garai batean ez bezala, zorionsu izateko aukera eduki, eta ez gara”. Eskura dugun arren!

### **Erljioek –kristautasunak, budismoak, islamismoak...–, diozu liburuan, zoriona galarazten digute...**


Erljioez oro har ari baldin bagara, bai, galarazi egiten digute. Lapurtu egin digute zorion kontzeptua. Giza zorionaz kezkatu beharrean, baztertu egin dute, absolutu bat sortu dute, harago dagoen zer edo zer, mundua eta gorputza mespretxatuz. Badira erljioak eta erljioak, baina hurrean izan ditugunek, monoteistek, suntsitu egin digute –partez bada ere– goza genezakeen zorion txiki hori. Beste munduan jarri dute mundu honetan, nonbait, balio ez duena. Voltairek arrazoi: “Erljioek eta teologok zer egin dute? Giza gogoan denez argi txiki bat duen kantadela bezalakoa, itzal dezagun!”. Ez, bada! Indar dezagun!

### **“Hildakoan erabat hasiko naiz bizitzen” kantatu zuen poetak baina zuk besterik idatzi duzu heriotzari buruz...**

Heriotza, berez, zorionaren etsai da, nik ulertzen dudana eran ulertuz gero, bederen. Harremanen haustea dakar heriotzak. Maite dituzunak kentzen dizkizu. Plan guztiak hankaz gortzen... Saihestezina da heriotza, oraingoz behintzat. Zoriona eragozten du, edo zorionsuago izatea. Gauza bat da hilezkorra izatea eta beste bat, diferentea, luzeago bizi ahal izatea, norberak nahi duenean ematea azken hatsa. Hori, oraingoz, ez dago gure esku. Hortaz, ez dugu heriotzari iskin egiten ibili behar, alderantziz baizik, gure bizitzan integratu behar dugu, onartu, jakin gure azken fina dela.

### **Horretan ere ez dugu asmatzen, ala?**

Beldurtu egiten gaitu heriotzak, negar eragiten digu, bihozmina dakar, dolua... Ez dugu onuratzat hartzen, bistan da, bestela ez guke ulertuko giza kultura. Bestalde, tradizio judu-kristauak ere ez digu laguntzen heriotzari neurri egokia hartzen. Berrargizatzea sinetsiko bagenu, zikloak badirela, beldur txikiagoa izango genioke heriotzari.



**Liburuan zorionaz ari zarelarik, kritika latza egiten diezu politikariei. Zoriona galarazten digutelakoan zaude...**

Gogor kritikatzten ditut politikariak, bai, baina ez dut kritika dogmatikorik egiten, ez horretan ez beste ezertan ere. Bere lana ondo egiten duen politikariak nire aitoren osoa izango du. Baina, oro har, politika patologizatu egin da, suntsitu neurri handi batean... Uste dut ez dagoela ukatzerik. Aski duzu jendearen kontzientzia haztatzea: nazkatuta dago. Politikariaren egitekoa guztiz aldatu da: lehen, herriaren aginduak betetzen zituen; orain, berak agintzen du herrian.

**“Fundamentalismo demokratikoa” gaitzetsi duzu liburuan...**

Eztabaida izan nuen “fundamentalismo demokratikoa” defenditzen dutenekin. Nik, “kritizismo demokratikoa” aldarrikatzen dut, ez fundamentalismoa. Fundamentalismorik bat ere ez, ezta demokratikoa ere. Egokitzen jakin behar dugu, oinarritzakoa uste duguna bera ere aldatzeko prest egon behar dugu. Badira, hala ere, behin ere onartuko ez ditugunak: haurra torturatzea, adibidez. Hori esanagatik ere, demokrazia mugikortasuna da, aldaketa, alternatiba... Ezin da demokrazia muturreraino eramanez, erradikalizatu. Fundamentalismo gutxiago, kritizismo handiagoa.

**Kritizismo horren ondorio ote da zuk Espainiako Konstituzioaren zenbait atal “ultranazionalistatzat” jotzea?**

Dudarik gabe. Badakigu zer dioten Konstituzioaren atal askok, eta ez naiz betikoen gainean ari. Bigarren artikulua, adibidez, dio Espainiar Konstituzioak nazioaren batasun zatiezina duela oinarri. Barkatu, baina inoiz entzun dudana gauzarik nazionalistena da hori! Areago, ondo nazionalismo eskasa, esango nuke nik. Konstituzioak, oinarrikerik inon izatekotan, espainiarren borondatea izan beharko luke zutarrak, ez lur eremu jakin bat eta, gainera, zatiezina izango litzatekeena, jainkoa bezain absolutua. Nazionalismorik atzerakoenak ere ez luke hori defendituko eta, aldiz, horixe ageri da espainiar konstituzioan.

**Urteak dira Biogenetikarekiko interesa agertu zenuena. Zorionaz jarduterakoan ere ez duzu zientzia hori bazter utzi...**

**«‘Fundamentalismo demokratikoa’ ez baina ‘kritizismo demokratikoa’ aldarrikatzen dut nik»**

Bioetika, esango nuke nik. Denboraldia daramat arlo horretako gaiak aztertzen, uste dut gure bizitzako alderdirik garrantzizkoena dela. Bioteknologia berrien iraultzak goitik behera bataiatuko gaitu: medikuntza eraberrituko du, biomedikuntza bera, gure gorputzak –terapia genikoen bitartez–, ezohiko gaixotasunei aurre egin ahal izango diegu, gehiago eta hobeto bizi ahal izango gara... Horrekin batera, ordea, hamaika ergelkeria egiteko arriskua dago;

egiten ere ari dira. Esan nahi dut, industria eta enpresa farmazeutiko handien harrapakina izan daitezke bioteknologia, haiek beren onura ekonomikoari besterik begiratzen ez badiote. Are, lehen eta bigarren mailako pertsonak sortzera irits gitezke. Hortaz, alderdi positibo asko ditu bioteknologia –gure osasuna hobetzeari dagozkion guztiak, alegia–, baina horrekin batera, aurpegi iluna ere badu, diru etekina lehenestea edo gure artean are eta diskriminazio handiagoak ezartzen laguntzea.

**Uste duzu gizakiak bide egokia hartu eta zuzen jokatu duela?**

Gizateriak nondik joko duen galdetzen didatenean, egoera aztertu eta ez naiz baikorra, ez dut-eta ikusten gauzek mundu honetan hobera egingo dutenik. Aldiz, harago joan eta mikroskopioa hartzen badut, askatasuna dugula ikusten dut, gizakiok dugun boterea. Orduan, bat egiten dut Chomskyrekin: “Gramo bat askatasun dugun bitartean, posible da aldaketa”. Uste dut zientziaren bidez orain arte izan ez ditugun gaitasunak izango ditugula, ez dut beraz esperantza galtzen. Beti esaten dut: ez etsi, ez inoiz amore eman. Aforismo batek dioenez, “Gauzak beste era batera izan daitezkeen lortzeko modu bakarra dago: era hartakoak izango balira bezala jokatzeari”.

**Zuk idatzia da: “Kontua ni zoriontsuago izatea da, ez beste inork ni zoriontsu egitea”.**

Jakina. Ingeniaritza genetikoari bete-betean dagokio hori: tumorea baldin badaukat eta erauzten badidate, primeran. Alabaina, minik ez izateko helburuz errobot bihurtzen banaute, ni ez banaiz neu izango, ez dut izan nahi. Horretan, Stuart Millen esaldi hura ondo egokia da: “Nahiago dut Sokrates asegabe bat izan, zerri asega baino”.

**Miel A. Elustondo  
Idazlea eta argazkilaria**





### Mundua on line

## Google tresnen eskuliburua euskaraz

Elgoibarreko Makina Erremintaren Institutuak (IMH) hainbat eskuliburu eskaintzen ditu bere webgunean dohai-nik, eta euskaraz. Argitaratu duten azkenekoa Google bilatzaile erraldoiaren inguruan dabilzan bestelako aplikazioen eskuliburua da. Google enpresaren produktu nagusia izen bereko bilatzailea den arren, Interneteko beste zerbitzu ugari ere eskaintzen dute, eta etengabe ari dira zerbitzu berriak sortzen.

Eskuliburu horretan, zerbitzu eta tresna interesgarri horietako batzuen argibideak ikus daitezke, zertarako balio duten eta nola erabili behar diren:

Google: bilatzaileen bilatzailea.

Gmail: 7GBtik gorako espazio txundigarria (egunetik egunera handitzen ari dena) eskaintzen duen posta elektronikozko zerbitzua.

Google groups: pertsonen taldeak sortu edota talde batean parte hartzeko zerbitzua.

Google calendar: egutegi zerbitzua.

Blogger: blogak eraikitzeko tresna.

Google Docs & Spreadsheets: online eta doako ofimatika.

Google dictionary: guztiontzako hiztegia, hizkuntza ugari-tan.

Google translate: webgune edo testuen itzulpen-zerbitzua.

Googlen bestelako zerbitzuak: Googlek beste hainbat tresna ere eskaintzen ditu.

Eskuliburua helbide honetan jarri dute:

[http://www.imh.es/dokumentazio-irekia/  
helpcenter\\_view?set\\_language=eu](http://www.imh.es/dokumentazio-irekia/helpcenter_view?set_language=eu)

**Luis Elizondo**  
[luis@hegoa.info](mailto:luis@hegoa.info)

## I VAP, Innobasqueko bazkide-laguntzailea

Joan den maiatzetik, IVAP Innobasqueko bazkide-laguntzailea da; horrela, IVAPek sendo eusten dio bere planteamendu estrategikoan egindako apostuari, hau da, antolakuntza eta eredu bikainak izateari.

Aliantza estrategiko horrek IVAPek finkatutako bi helburu handiri erantzuten die: batetik, aliatu sarea izatea (IVAPen helburuak betetzen lagun dezan), eta bestetik, IVAPeko produktu, zerbitzu eta prozesuetan berrikuntza aplikatzea.

Innobasque edo Berrikuntzaren Euskal Agentzia ondorengoek osatzen dute: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileek, enpresa pribatuek, euskal erakunde publikoek, enpresaburuen eta langileen erakunde-etako ordezkariak eta berrikuntzarekin zerikusia duten bestelako antolakundeek.

Aurrerantzean, beraz, IVAP ere Innobasqueko bazkide-laguntzaile sare handi horretan izango da.

## E uskarazko zinpeko itzultzaile eta interpreteen gaikuntzarako Dekretua onartu du Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak zinpeko itzultzaile eta interpreteen gaikuntzari buruzko Dekretua onartu zuen apirilaren 21ean. Dekretu honen xedea da, batetik, zinpeko itzultzaile eta interprete gisa aritu ahal izateko gaikuntza profesionala arautzea, –bai euskaratik beste hizkuntzetarako eta bai beste hizkuntzetatik euskararako itzulpen eta interpretazio lanetan jarduteko ere– eta, bestetik, lanbide honetarako gaituak daudenen erregistroa osatzea.

Orain arte Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO) arduratu da euskararako eta euskaratik gaztelaniarako itzulpenen zehaztasuna eta baliokidetasun juridikoa ziurtatzeaz, dokumentuek itzulpen ofiziala behar zutenean. Gaur egun, baina, eskaria areagotu denez, herritarrei zerbitzu hobea eta iristerrazagoa ziurtatzeko, Eusko Jaurlaritzak komenigarri deritza eginkizun hori profesional prestatu eta gaituek ere bete ahal izateari.

## Z uzeu albistari digital berria

Zuzeu albistaria Internetetik eta Interneterako euskaldunontzat sortutako albistari digitala da. Interneten euskaraz dagoen eskaintza zabaldu behar delakoan, egoera azkartzeko asmoz dator, eta bide batez, erabiltzaileari aktiboki aritzeko aukera emateko. Euskaraz idatzitako albiste eta iritziez gain, beste hizkuntzetatik hartutako edukiak ere eskaintzen ditu, Zuzeu munduari begiratzeko leiho bat baita.

Xoraturikan Elkarte Mugatuak bultzatutako irabazi asmo gabeko ekimen hau informazio tresna horizontala da eta horregatik da hein handi batean erabiltzailea bera edukiak sortzen dituen, erredakzioaz gain. Erabiltzailea protagonista izaki, parte hartzea, etzabaida eta hausnarketa sustatzen ditu Zuzeuk. Horretarako, Web 2.0 inguruneak eskaintzen dituen tresnak erabili, eta sare sozialen integrazioa eta erabiltzaileen komunitatea beti present izango ditu.

Hemen helbidea: <http://zuzeu.com/>

# Jakinarazpena



**E**skuliburuaren arabera, horri, nola begiratzen zen, “jakinarazpena” zegokiokeen. Lancelot funtzionarioak urteak zeramatzen beharrean, urte asko, eta oraindik buruan zeuzkan administrazio-hizkerak bete behar zituen ezaugarriak: homogeneousotasuna, objektibotasuna, administratuarekiko hurbiltasuna –ez, ordea, familiartekotasuna–, begirunea, argitasuna, eta beste. Lancelot funtzionarioak adar-ziri bat zapaldu zuen une horretan, ordea, ezustean, eta berehala gelditu zen, auzokoren batek entzungo ote zuen beldurrez, arnasari kontu eginik.

Ezer ez inguruan, baina. Pausoa luzatu zuen berriz, beraz, gomazko zolak zeuzkaten zapata gogorak ipini izanaren prekauzioa hartzeagatik pozik. Izan ere, zeharkatzen ari zen lorategia ez zen handiegia, baina gaueko ordu horietako ilunak inurriak hartz egiten zituen, eta han-hemenkako argibristadak mamu. Inork ez zuela hotsa entzun baieztatu zuelarik, berriz abiatu zen, poliki, kontuz, frontala pizteko kemenik gabe. Izan ere, Lancelot funtzionarioak –urteko eskarmentua zela medio–, ederki zekien administrazio-bizitzak testu edotarikoak sortzera behartzen zuela. Testuari buruzko ideia zabal, oso zabal egiteraino. Testua ez da soilik idatzizko kodearen arabera osatzen den artefakto bat. Testua –testuinguruaren laguntza ezinbestekoarekin, noski–, idatzizko, ahozko, keinuzko eta are sinbolozkoa izan daiteke, jakina. Berak sailkatu behar izan balu, “jakinarazpen sinbolikoen” sailean sailkatuko zuen une hartan osatzen ari zen testu, esan dezagun, ez ohikoa –ez ohikoa, ezen ez bakar edo sekulakoa ez bezalakoa–. Une hartan estropezu egin eta asun bat igurtzi zuen eskuaz. Burroa botatzeko gogoia irentsi zuen, eta malko bat isuri zitzaion matrailetik behera.

Beste une batez geratu zen lorategi txiki eta ez ongiegi landutakoaren erdian, zutik eta mutu, atezuan, aiduru, adi. Inguruan katu baten miauka ahula baino ez zen entzun. Gogoeta egiteko astia eduki zuen, alabaina, Lancelot funtzionarioak: izan ere, nola liteke hiritar subertsibo horrek etxea ez ezik –horixe gutxi ez zela–, lorategia ere izatea? Larderia eskas-

ten ari zelakoa etorri zitzaion burura. Begirunea eta objektibotasuna ongi zeuden, baina Lancelot funtzionarioa ez zen fio edozein hiritarrek, etxea ez ezik, lorategia edukiz gero non gera litezkeen ordenaren balio fundamentalak eta oinarritzkoak. Berriz entzun zen katuaren miauka ahula, ordea, eta bipildu zen, horrek erakusten baitzuen gau hartan behintzat, ongi bideratuta zegoela. Matapaxa zeukan esku batean Lancelot funtzionarioak, eta gazta zati bat bestean. Pozoinduta. Gauez katu guztiak kolore batekoak dira, baina Sizilian egin ikastaro batean ederki ikasi zuen ez dela katurik, den kolorekoa izanik ere, gazta on bati muzin egiten dionik. Bestalde, ez zuen ulertzen nolaz eduki zezakeen hiritar subertsibo horrek katu bat lagun, katuak, berez, izaki higuigarriak iruditzen zitzaizkiolako, hiritar subertsiboak bezain. Baina funtzionarioak gauzak funtzionarazteko daude, eta eskarmentu luzeko eta ibilbide oparoko Lancelot funtzionarioak hiritar administratuen xelebrekeriak edotarikoak direla ongi zekien. Besterik gabe, ez zioten ordaintzen inoren joerak epaitzek, ez bazen behar bezalako jakinarazpenak, gaztiguak, oharrak, diligentziak eta ofizioak egiteko baizik, beti ere hizkera administratiboaren argitasuna eta homogeneousotasuna galdu gabe.

Etiket bost metrora zegoenean gazta puska utzi zuen aterantz zihoan harlauzazko bidexkan. Katua katu aritu zen, eta etxeko ateko beheko zulotik atera zen presaka, jakin gabe mokadu goxoa azkena ere bazena. Matapaxaz errematatu zuen.

Ondorengoa erraza zen. Arratsalde hartan beran erosi zituen Quechua markako zapatilen kutxa hustu, katua sartu, itxi, paperean bildu eta hiritar subertsiboaren helbidea idatzi zuen. Jakinarazpena argia zen, objektiboa, proteina multzo bat bezain, hurbila eta homogeneousoa, katua laurdenkatuta ez zegoenez. Ondo egindako lana, Siziliako ikastaroan erakutsi zioten bezala.

**Jon Alonso**  
Idazlea

# Lege itzulpenetako koxka batzuk

**T**estu juridikoen erredakzioan estilo egoki bat bilatu nahian ari gara itzultzaileok, gaztelaniatik behar bezainbeste aldendu eta euskararen senari erantzunez. Estilo horrek, ez dago zertan esan, komunikagarritasuna bermatu beharko luke lehenik, gaiaren garapenean koherentzia eta oreka gordez, baina gainera kultura izan beharko luke, alegia, lotua, jarraitua eta biribila, hizkera jasoari dagokion bezala. Orogen buru, lege-prosak gutxieneko seriotasun eta fidagarritasun bat erdietsi beharko litzuke erabiltzailearen begi eta belarrietan. Hainbat urte daramagu lege-testuak itzultzen, eta kasu askotan oraindik ez dugu lortu idazkera doitu bat. Badirudi kostatu egiten zaigula prosa-eredu asebetegarri hori erditzea. Nire gusturako, irakurri dudan apurra-aren arabera EHUko “Legeak” bildumakoa da erabili beharreko estilo horretara gehien hurbiltzen dena.

Esan dudanez, aje ugari ditu oraindik gure itzulpen juridiko-etako askok: terminologian, garbizaleegiak gara batzuetan; sintaxian, edo larregiko trinkotasunez jokatzen dugu, edo gehiegi zatituta ematen ditugu esaldiak, erdibidea ezin topaturik; itzulgaiarekiko, batzuek zurrunez jokatzen dute, beste batzuek libreegi itzultzen; estilistikari dagokionez, batzuetan edukia nola edo hala ematearekin konformatzen gara, komunikazioari kasu egin gabe; norik geure sistematoa daukagu, norik geure automatismoak, gehiegi kontrastatu gabe erabiltzen ditugunak... Seguruenik gehiegi eta presakaegi itzultzen dugu, baina gutxieneko kalitatea lehenetsi beharko genuke kantitatearen ordez. Kontua da euskarak nolabait doinu propio egoki bat lortu beharko lukeela testu juridikoetan, komunikagarritasuna eta estilo jasoa oinarri izango litzukeena. Gaur egun, ordea, euskal testu juridiko asko deskodetzen zailak dira, tranpaz beterik daude, ez dute behar bezain erraz bermatzen komunikazioa. Artikulu honetan lege-itzulpenetako hiru koxka nabarmendu nahi nituzke, hiru “bekatu larri”, bi edukiari eta bat formari dagozkionak.

## 1. MINTZAGAIA ETA GALDEGAIA ATZERATZEA

Lehenengo koxka gaiaren aurkezpenaz da. Labur esanda, adierazpen orotan mintzagaia da erreferentzia nagusia, mezuaren hizpidea edo hizketa-markoa delako; galdegaia, berriz, eduki inportanteena da, informazio berria edo predikazioaren muina bildu ohi duelako. Komeni da bai mintzagaia bai galdegaia nahiko aurrean eta elkarrengandik nahiko hurbil azaltzea adierazpenean, mezua argitasunez eta orekaz garatuko bada. Beraz, saihestu egin behar da esaldia gehiegi

zamatzea predikazio-gunea eman baino lehen (aurrekarga), komunikazioaren kalterako delako. Hori lotzeko, agian beharrezkoa izango genuke halako esamolde edo hitz-segida jakinen sorta bat finkatzea esaldia abiarazteko, euskal esaldiari hasieratik beretik nolabait doinu propio egoki bat eman diezaioaten. Hona hemen bi adibide, mintzagaia eta galdegaia atzeratzeagatik komunikazio-arazoak dituztenak.

**Se entiende por alumnado que** presenta necesidades educativas especiales, **aquel que** requiera, por un periodo de su escolarización o a lo largo de toda ella, determinados apoyos y atenciones educativas específicas derivadas de discapacidad o trastornos graves de conducta.

Ezgaitasunak edo jokabide-nahaste larriak izateagatik eskolatzeko-aldi batean edo eskolatzeko osoan berariazko hezkuntza-laguntzak edo hezkuntza-arretak behar **dituztenak dira** hezkuntza premia bereziak dituzten **ikasleak**. [Hezkuntzari buruzko Legea, IZOren itzulpena]

Hezkuntza-premia bereziak dituen **ikasletzat joko da** hezkuntza-laguntza edo -arreta espezifiko batzuk **behar dituenak**, ezgaitasunaren edo jokaera-nahasmendu larrien ondorioz, eskolatzeko-aldi batean edo eskolatzeko osoan. [Proposatzen den itzulpena]

**Las Administraciones educativas podrán programar y ofertar cursos** destinados a la preparación de las pruebas para el acceso a la formación profesional de grado medio por parte de quienes hayan superado un programa de cualificación profesional inicial y para el acceso a la formación profesional de grado superior por parte de quienes estén en posesión del título de Técnico al que se refiere el apartado 1 del artículo 44.

Hasierako lanbide-prestakuntzako programa bat gainditu dutenek erdi-mailako lanbide-heziketan sartzeko, eta 44. artikulua- ren 1. paragrafoan adierazitako teknikari-titulua dutenek goi-mailako lanbide-heziketan sartzeko probak prestatzera bideratutako **ikastaroak programatu eta eskaini ahal izango dituzte hezkuntza-administrazioek**. [Hezkuntzari buruzko Legea, IZOren itzulpena]

**Hezkuntza-administrazioek ikastaroak programatu eta eskaini ahal izango dituzte** hasierako lanbide-prestakuntzako programa bat gainditu dutenentzat, erdi mailako lanbide-prestakuntzan sartzeko probak presta ditzaten, eta orobat 44. artikulua- ren 1. paragrafoan adierazitako teknikari-titulua dutenentzat, goi mailako lanbide-heziketan sartzeko probak presta ditzaten.



## 2. KOHERENTZIA APURTZEN DUTEN ETENAK

Bigarren koxka ere edukiari dagokio, garapen tematikoari. Labur azalduta, gaiaren garapenak koherentzia bat izan behar du, halako jarraipen bat. Ondorioz, ezin da eten arbitrariorik egin gaiaren harian, gaiz aldatuz eta ondoren hasierako gaira itzuliz. Horrek distortsioa sortzen du, halako inkoherentzia bat sartzen du garapen tematiko orokorrean. Beheko adibidean gaia “inskripzioa” da, hori da garatzen den hizpidea. Beraz, informazio bat osagarria edo bigarren mailakoa irudituz gero, apartekiz (alabaina, baliabide desegokia da lege-testu batean) edo, bestela, mendeko esaldiz eman beharko da.

Los partidos políticos adquieren personalidad jurídica por la inscripción en el Registro de Partidos Políticos **que, a estos efectos, existirá en el Ministerio del Interior**, previa presentación en aquél del acta fundacional suscrita por sus promotores, acompañada de aquellos documentos que acrediten el cumplimiento de los requisitos previstos en la presente Ley Orgánica.

Alderdi politikoei nortasun juridikoa lortzen dute Alderdi Politikoen Erregistroan inskripzioa eginez; **ondore horietarako, erregistro hori egongo da Barne Arazoetarako Ministerioan**. Aldez aurretik, sustatzaileek sinatutako sortze-akta aurkeztuko da Erregistroan, eta sortze-aktarekin batera ekarriko dira lege organiko honen betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak. [Alderdi Politikoei buruzko Legea, Deustuko Unibertsitateko itzulpena]

Nortasun juridikoa Barne Ministerioan izango den Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatuz lortzen dute alderdi politikoei / Nortasun juridikoa Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatuz lortzen dute alderdi politikoei, zeina Barne Ministerioan izango baita hartarako. Inskripzioa egin baino lehen... [Proposatzen den itzulpena]

Hurrengo adibidean, “biltzarra” da hizketagaia, garatu beharreko hizpidea. Beraz, koherentziaren aldetik ez da egokia gaia une batean desbideratu eta gero berriro lehengo bidera itzultzea, distortsioa eragiten baitu. Halakoetan, mendeko perpausaz emanda lortu ohi da normalean hari nagusia ez etetea. Itzulgaiko hierarkizazio informatiboa ezin da arbitrarioki desmuntatu eta berre-raiki, kudeaketa tematiko egokia egin behar baita itzulpenetan, itzulgaiari fidel izateko.

Sin perjuicio de su capacidad organizativa interna, los partidos deberán tener una asamblea general del conjunto de sus miembros, **que podrán actuar directamente o por medio de compromisarios**, y a la que corresponderá, en todo caso, en cuanto órgano superior de gobierno del partido, la adopción de los acuerdos más importantes del mismo, incluida su disolución.

Barne-antolaketaarako gaitasuna gorabehera, alderdi politikoei euren kide guztien biltzar orokorra izan beharko dute. **Alderdi-deek zuzenean edo konpromisarioen bidez jardun ahal izango dute**, eta biltzar orokorraren ardura izango da, kasu guztietan, alderdiaren gobernu organo nagusia den ginoan, alderdiaren erabaki garrantzitsuenak hartzea, alderdia desegitea barne. [Alderdi Politikoei buruzko Legea, Deustuko Unibertsitateko itzulpena]

Barne-antolamendurako duten ahalmena gorabehera, alderdiek beren kide guztien biltzar orokorra egin beharko dute, **non alderdi-deek zuzenean edo konpromisarioen bidez jardun ahal izango baitute**. Biltzar orokor hori alderdiaren gobernu-organon nagusia izango da eta... [Proposatzen den itzulpena]

Azkenengo adibidean, hizpidea, “ez-zilegatasun penalaren zantzua”, aurreko paragrafoetik dator, hartan azaltzen baita balizko kasu horretan Barne Ministerioak nola jokatu behar duen, eta aztergai dugun paragrafoan, aldiz, azaltzen da kasu berean nola jokatu behar duen Fiskaltzak. Hots, elkarren jarraipen dira paragrafo biak, gai bera garatzen dute. Ondorioz, inkoherentea da hizpidea paragrafoaren azkenean solte eta isolaturik ematea, lekuz kanpo gelditzen baita. Hierarkizazio tematikoaren arabera beste nonbait txertatu beharko dugu, mendeko perpaus baten bidez.

El Ministerio Fiscal, en el plazo de veinte días desde que reciba la comunicación a que se refiere el apartado anterior, optará, **en función de que se consideren suficientes o no los indicios de ilicitud penal**, por ejercer ante la jurisdicción penal las acciones que correspondan o por devolver la comunicación al Ministerio del Interior a los efectos de completar la inscripción.

Fiskaltzak erabakiko du, aurreko paragrafoko komunikazioa jaso eta hoge eguneko epean, zigor-jurisdikzioan kasuan kasuko akzioak egikaritzea ala komunikazioa Barne Arazoetarako Ministerioari itzultzea, inskripzioa osa dadin. **Fiskaltzak erabaki hori hartuko du, ez-zilegatasun penalaren zantzua behar bestekoak diren ala ez kontuan hartuta**. [Alderdi Politikoei buruzko Legea, Deustuko Unibertsitateko itzulpena]

Fiskaltzak, aurreko paragrafoan aipatutako komunikazioa jaso eta hoge eguneko epean, erabakiko du, **ez-zilegatasun penalaren zantzua nahikoak direla uste badu**, dagozkion akzioak egikaritzea zigor-jurisdikzioan, **eta ez direla nahikoak uste badu**, komunikazioa Barne Ministerioari itzultzea, inskripzioa osatu dadin. [Proposatzen den itzulpena]

## 3. ERLIEBE JOKO DESEGOKIAK

Hirugarren koxka formari dagokio. Testu bat arazorik gabe deskodetu ahal izateko, komeni da unitate guztiek beren marka sintaktikoa eramatea, eta horrez gainera eduki berdineko unitateek marka bera edukitzea eta eduki desberdinekoek marka desberdina. Komeni da, orobat, marken artean gutxieneko eta behar adinako dibertsitatea egotea, unitateen edukia azkar identifikatze eta erreferentziatze aldera. Lege-itzulpenetara jotzen badugu, ikusiko dugu batzuetan badela halako “marka-ekonomiazaletasun” bat, unitateak azkar identifikatzea eta erreferentziatzea zailtzen duena.

Complementar y apoyar políticamente la acción de organizaciones terroristas para la consecución de sus fines de subvertir el orden constitucional o alterar gravemente la paz pública...

Erakunde terroristen ekintza **osatu** eta laguntzea, halakoek konstituzio-ordena **asaldatu** edo bake publikoa modu larrian hausteko dituzten xedeak lor ditzaten... [Hezkuntzari buruzko Legea, IZOren itzulpena]

Erakunde terroristen jarduna politikoki **osatzea eta laguntzea**, halakoek konstituzio-ordena **iraultzeko** edo bake publikoa larriki **hausteko** dituzten xedeak lor ditzaten... [Proposatzen den itzulpena]

Itzulpen-testu batzuetan marka berdin gehiegi pilatu ohi da izaera desberdineko edukiak emateko, eta iluntasuna eta zailtasuna sortzen da deskodetzeko orduan. Erliebe-berdintasunak nahasmena eragin ohi du halakoetan, zaila baita zein unitate zein erreferentziari dagokion bereiztea. Beraz, berdinak baina erreferentzia desberdinekoak diren markak hobe elkarren ondoan ez pilatzea, baizik eta zein bere erreferentziatik hurbil. Hona hemen era horretako hiru adibide:

Corresponde a las Administraciones educativas adoptar las medidas necesarias para identificar al alumnado con altas capacidades intelectuales y valorar de forma temprana sus necesidades.

Hezkuntza-administrazioek adimen-gaitasun **handiak** dituzten **ikasleak** identifikatzeko **beharrezkoak** diren **neurriak** hartu eta ikasle horien premiak garaiz balioetsi beharko dituzte. [Hezkuntzari buruzko Legea, IZOren itzulpena]

Hezkuntza-administrazioen ardura da beharrezko neurriak hartzea, adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleak identifikatzeko eta beren beharizanak ahalik goizen baloratzeko. [Proposatzen den itzulpena]

Las Administraciones educativas promoverán la formación del profesorado y de otros profesionales relacionada con el tratamiento del alumnado con necesidad específica de apoyo educativo.

Hezkuntza-administrazioek hezkuntza-**laguntzaren** berariazko premia duten **ikasleen** tratamendurako **irakasleen** eta beste profesional **batzuen** prestakuntza sustatuko dute. [Hezkuntzari buruzko Legea, IZOren itzulpena]

Hezkuntza-administrazioek sustapen-neurriak hartuko dituzte irakasleen eta beste profesional batzuen alde, hezkuntza-laguntza espezifiko behar duten ikasleen tratamendurako prestatu daitezkeen. [Proposatzen den itzulpena]

Con el fin de articular un sistema eficaz de verificación y control de las becas y ayudas concedidas, se establecerán los procedimientos necesarios de información, coordinación y cooperación entre las diferentes Administraciones educativas.

Emandako bekak eta laguntzak **egiaztatzeko** eta **kontrolatzeko** sistema eraginkor bat **antolatzeko**, hezkuntza-administrazioen artean informazioa **emateko**, **koordinatzeko** eta lankidetzan

**jarduteko** beharrezkoak diren prozedurak ezarriko dira. [Hezkuntzari buruzko Legea, IZOren itzulpena]

Beharrezkoak diren informazio-, koordinazio- eta lankidetzaprozedurak ezarriko dira hezkuntza-administrazio guztien artean, sistema eraginkor bat antolatzeko emandako beka eta laguntzen egiazta-pen eta kontrolerako. [Proposatzen den itzulpena]

Bestalde, marka batzuk, nolabait esan, “markatuak” dira, alegia, oinarrizko balioaz gain balio erantsi bat dute. Ondorioz, orokorrean esanda, baina batik bat lege-testuei begira, itzulgaietan ñabardura berezirik ez baldin badute, hobe da, estilo neutro eta jaso bati zor zaionez, eduki batzuk marka neutro, simple eta oinarrizkoz itzultzea, marka “berezi” horiek erabili beharrean.

Complementar y apoyar políticamente la acción de organizaciones terroristas para la consecución de sus fines de subvertir el orden constitucional o alterar gravemente la paz pública, tratando de someter a un clima de terror a los poderes públicos, a determinadas personas o grupos de la sociedad o a la población en general, o contribuir a multiplicar los efectos de la violencia terrorista y del miedo y la intimidación generada por la misma.

... botere publikoak, pertsona **nahiz** gizarteko talde jakin batzuk edo biztanleria orokorrean ikaratu nahian, **edota** indarkeria terroristaren eta horrek eragindako beldurraren **nahiz** larderiaren ondoreak ugaritzen laguntzea. [Alderdi Politikoei buruzko Legea, Deustuko Unibertsitateko itzulpena]

... hartarako izuzko giroa ezarri nahirik botere publikoei, gizarteko pertsona edo talde jakin batzuei edo biztanle guztiei, **edo** laguntzea indarkeria terroristaren eta beldurraren **eta** haren ondoriozko larderiaren ondorioak areagotzen. [Proposatzen den itzulpena]

Hiru sintoma, beraz, idazkera-mota baten gordintasuna eta desegokitasuna salatzen dutenak. Adierazgarria da, bestalde, halako praktikak, batik bat, itzulpen administratibo eta juridikotetan aurkitu ditudala, apenas itzulpen literarioetan eta sortze-lanetan. Horrek salatzen du nominako itzultzaile batzuek itzultzerakoan erabiltzen ditugun estrategia batzuen ondorio direla. Estrategia horiek, sarritan, automatismo akritiko bihurtu ditugu, komunikagarritasuna eta estilistika behar adina kontuan izan gabe. Ordua da denok, neugandik hasita, gure itzulpen-estrategiak berraztertu eta kontrastatu ditzagun, erdietsi beharreko prosa juridiko kultu eta orekatu hori adoste eta finkatze aldera.

**Jesus Mari Agirre**  
**Eusko Legebiltzarreko itzultzaile-zuzentzailea**

# Erljioa eskolan

**Erljioak eskolan duen pisua eta lekua aldatuz joan dira azken urteetan, gizartean bertan eman den aldaketaren irudiko. Duela mende erdi eskola bizitza osoa gidatzen zuen doktrina izatetik, egungo hautazko irakasgai izatera pasa da. Batzuen ustez, hautazko aukera hori ere gehiegizkoa da eta herri akonfesional batean erljioa eskolatik kanpo, parroketan, erakutsi beharko litzateke. Beste batzuek, aitzitik, erljio kristaua euskal gizartearen historiaren parte dela eta eskolan bere lekua behar duela diote. Zer egin, orduan, Euskal Herrian gero eta presentzia handiagoa duten bestelako erljioekin?**



**Joan Maria Uriarte**  
Donostiako Gotzaina

## **Erljioa eskolan: nola, zergatik, zertarako?**

Erljio kristaua mendebaldeko kulturaren osagai da. Kultura hau ez dago ulertzerik erljio kristaua ezagutu gabe. Erljio kristauak balio handiak dakartza eta beharrezkoak ditugu bizi izateko eta besteekin bizitzeko: pertsonaren balio nagusia, senidetasuna, behartsuen eta sufritzen daudenen aldeko jarrera, itxaropena, etab. Gurasoak ez dira eskolaren “bezero” hutsak; alderantziz, eragileak dira eskola-bizitzan. Seme-alaben hezkuntzan bide erlijiosoa eta morala aukeratzeko eskubidea aita-amena da, ez irakasleena. Arlo horretan beren umeentzako bide jakin bat eskatzen duten heinean, eskolak eman egin behar die.

Akonfesionalak ez du esan nahi erljioarekiko axolagabea edo mespretxuzkoa. Esan nahi du estatuak ez duela lehenesten erljio bat beste baten aldean, eta ez, ordea, sinestea edo ez sinestea. Eskolak pentsatzen badu bere zeregina ezagutzen transmisio hutsetik haratago doala, eta sinisten badu bere egitekoa dela jarreraren hezitzaile eta balioen bultzatzaile izatea, orduan, gurasoek aukeratutako erljioa ez da arrotza izango eskolan.

## **Herri akonfesional batean, erljioak ba ote du lekurik irakaskuntzan?**

Akonfesionalak ez du esan nahi erljioarekiko axolagabea edo mespretxuzkoa. Esan nahi du estatuak ez duela lehenesten erljio bat beste baten aldean, eta ez, ordea, sinestea edo ez sinestea. Eskolak pentsatzen badu bere zeregina ezagutzen transmisio hutsetik haratago doala, eta sinisten badu bere egitekoa dela jarreraren hezitzaile eta balioen bultzatzaile izatea, orduan, gurasoek aukeratutako erljioa ez da arrotza izango eskolan.

## **Egungo hezkuntza sisteman erljioaren irakaskuntza egokia al da (ordu-kopurua, metodologia...)?**

Pixkanaka-pixkanaka Erljioaren irakaskuntza ertz-ertzeko ordutegietara baztertuz doaz eta batzuetan eskolak emateko baldintza desegokietara. Adibidez, neska-mutikoei nahiz nerabeei “erljioa ala ezer ez” aukera ematea, horien askatasuna “askatasun mugatua” dela ez ezagutzea da gutxienez, eta askatasun horri batez ere eskola giroak indar handiz eragiten diola. Baldintza horietan aukeran utzitako ikasgaia, dena dela ere, oso ikasle gutxik hautatuko dute. Baldintza horien azpian irizpide hau dago: beharrezkoa da erljioa eskolatik kanpora botatzea. Hau gure artean gertatzen ari den bitartean, Europar Batasuneko herri gehienek gureak baino ordutegi zabalagoa dute.

## **Gero eta etorkin gehiago daudela kontuan izanda, nola uztartu bizikidetzara eta erljio desberdinak?**

Europar gaur egun dauden erljioek elkargune anitz dituzte. Batek berak ez darama bere doktrinaren indarkeriazko edukirik. Are gehiago, erljioak ziur daude beren eginkizun nagusietako bat bakea dela. Hala adierazi zuten Asisko Topaketan; aita santuak deitu zuen topaketa hartara eta bertan esku hartzeko zoria izan nuen. Gatazkak izateko arriskuak gure gizartearen beste ezaugarrietatik datoz, ez erlijiotik.

**Arantxa**  
**Urretabizkaia**  
Idazlea



## **Erljioa eskolan: nola, zergatik, zertarako?**

Nire ustez erljioak, erljioek, irakaskuntzatik kanpo egon behar lukete, behintzat doktrina moduan ematen direnean. Beste kontu bat da ikuspuntu filosofiko edo historikotik aztertzen direnean.

Pasa dira bi mende luze Europar bizitza zibila eta erljioa bereizten hasi zirenetik eta guk apenas egin dugun aurrera. Nire ustez, eta pixkanaka, eliza katolikoa eta bizitza zibila bereizi egin behar dira. Horrek esan nahi du kaleetan nahiz elizetan ospatzen diren eginkizunetan ez lukeela agintari zibilik egon behar. Noski, alkate batek har dezake parte meza batean edo prozesio batean, baina ez agintari gisa.

## **Herri akonfesional batean, erljioak ba ote du lekurik irakaskuntzan?**

Uste dut, berez, erljioaren irakaskuntza ordutik kanpo eman behar litzatekeela eskolan, horretarako baitaude parrokiak. Hori lortzen den bitartean, aproposa iruditzen zait gaurko antolaketa. Antolaketa diot, metodologiari buruz ez baitut irizirik. Gertatzen da elizak ikasle gatuak nahi dituela, beste la doktrinara joango ez zaizkiolakoan.

## **Gero eta etorkin gehiago daudela kontuan izanda, nola uztartu bizikidetzara eta erljio desberdinak?**



Hiritartasunaren heziketa da erlijio desberdinak bizikidetzarekin uztartzeko modu aproposa. Irakaskuntzak zerbait sendotu behar badu, tolerantzia da, erlijio desberdinekiko, aukera politiko desberdinekiko...

Gure artean honezkero dagoen erlijio aniztasuna arrazoi gehigarri bat da gure agintariak eta eliza katolikoa bereizteko. Alkatea mezetara badoa, sinagogara ere joan behar du edo meskitara.



### **Ana Eizagirre** **Euskal Herriko Ikasleen** **Guraso Elkarte (EHIGE)**

#### **Erljioa eskolan: nola, zergatik, zertarako?**

Formakuntza integralak norbanakoaren pertsonalitatea osatzen duten alderdi guztiak hartzen ditu barne, eta hor erlijioak ez dauka lekurik. Erljioa ez da espiritualitatearen sinonimo, are eta gutxiago erlijio bakar bat.

#### **Herri akonfesional batean, erlijioak ba ote du lekurik irakaskuntzan?**

EHIGE ez dago ados ikastetxe publikoetan inolako konfesionalitate irakastarekin. Hori dela eta, etapa guztietan Erljio ikasgaia kentzea eskatzen dugu.

Balio unibertsaletatik abiatzen gara, hauek garai, egoera eta abarren arabera aldatzen diren arren. Baloreen eraikuntza ez da irakasgai bakar baten eskumena, eskola osoaren eta orokorrean gizartearen zeregina da.

#### **Egungo hezkuntza sisteman erlijioaren irakaskuntza egokia al da (ordu-kopurua, metodologia...)?**

Jendartearen sinesmen desberdinen errespetuak eta eremu pribatuen erabiltzeko eskubideak ez dute gidatu behar hezkuntza sistema ikastetxe publikoetan ordutegia antolatzerakoan. Estatuak eta Administrazioak badituzte beste bide batzuk eskubide horiek errespetarazteko gizarte mailan. Eskola orduetan Erljioa eta hau ikasi ez dutenentzako "alternatiba" sartzen direnean, ez dira errespetatzen batzuen eta besteen eskubideak. Erljioa aukeratzen ez duten ikasleak ikasgai hau aukeratzen dutenen ordutegira eta eskakizunetara moldatzera behartzen ditu.

#### **Gero eta etorkin gehiago daudela kontuan izanda, nola uztartu bizikidetzeta eta erlijio desberdinak?**

Irakaskuntza publikoaren helburuetako bat berdintasuna da. Elkarlanean, banatzen, onartzen, kritikatu eta laguntzen, interesa izaten, elkarri eragiten, errespetatzen... ikastea nahi dugu. Besteekin bizitzen ikastea azken finean, ezberdintasuna errespetatuz. Hori denona dela eta, mugarik gabeko eskola defendatzen dugu.

### **Aitor Bilbao** **Kristau Eskolako** **zuzendari nagusia**

Erljioa eskolan egotea nahi dutenen artean jarrera desberdinak daude: batzuek gertaera sozial eta kultural gisa onartzen dute erlijioa, baina ez dute nahi erlijio eskola bere horretan. Horien iritziz, erlijioa eskolan ez da hartu behar arlo espezifiko gisa eta eduki erlatiboak arlo hurbilenetan kokatu behar dira. Horrela, berdin-berdin ikasiko lirateke islama, hinduismoa edo kristautasuna, zibilizazioen historiari lotutako alderdi kulturala kontuan hartuta. Beste batzuek –erlijioa eskolan ikusi nahiko luketenek– nahiago lukete ezagutza arlo propioa egotea.

Erljioa eskola "publikotik" atera behar dela defendatzen dutenak, euren iritziz gizarte progresista eta aurreratuagoek euren laizismoan oinarritzen dira. Planteamendu horri erantzuteko, esan daiteke gizarte aurreratueta ohikoena estatu laikoa dela, ez laizista. Horrek esan nahi du estatuak ez duela jakineko erlijio baten alde egiten baina, bestalde, ez dela ahalegintzen bizitza publikotik kentzen ere, ezta eskolaren esparrutik ere.

Laikotasuna eta laizismoa bereiztea funtsezkoa da Erljioa irakaskai egokia den edo ez ulertzeko. Laikotasuna pluraltasun gisa edo kultura aniztasun gisa ulertzen dutenek, hau da, laikotasuna uniformetasun ez-erlijiosoarekin identifikatzen ez dutenek, ez dute kontraesanik ikusten eskola curriculumean erlijio konfesionalak sartzeko.

Laizismoak dituen gaizko aduraren eta erraietako erreakzioen erruduntasunaren zati handi bat Eliza Katolikoak berak du instituzio gisa, gizarte laikoaren printzipioak aitortzea eta onartzea kostatu egiten zaiolako. Elizak birkokatu egin behar du munduaren ikuskeren inguruan eta gizartearen ezagutza moralen inguruan duen monopolizazioa.

Elkarrekin bizitzen jakitea da, dudarik gabe, gaur egungo premia kultural aipagarrienetakoa. Kontuan hartuta, batik bat, migrazioen eta komunikabide sozialen ondoriozko gizarte gero eta kultura eta erlijio aniztagokoaren hazkundera. Erljioen artean bakerik ez dagoen bitartean, munduan ere ez dela bakerik izango egiaztatu ahal izan denean, zuhurtziagabekeria izango litzateke eskolan umeak euren sinesmenen arabera sailkatzea eta elkarren aurka jartzea, elkarrekiko ezagutzara eta adiskidetasunera hurbildu beharrean.



**Begoña Miñaur**  
**Kazetaria**



## Sahats magaletan



**B**anku berdean eserita ezagutu nuen, erreka ondoan, sahatsaren azpiko egurrezko banku berdean.

Iluntzero eseri zen han, udak iraun zuen bitartean. Baina eseri aurretik, errekatik ura hartzen zuen egur ilunez egindako ontzi biribil batean eta sahatsaren magalean zabaltzen zuen, barrurako kantu bat zirudiena xuxurlatzen zuen bitartean.

Emakume eder bat zen, beltz-beltza, handia, baso basati koloreko begi eta ezpain mamitsuen jabea; masailezur beteak zituen eta irribarre triste edo arduratua, haren ikusgarritasuna estali egiten zuena.

Kolore biziz janzten zuen gorputz beltza liraina zen zango eta gerrialdean, oparoa berriz bularraldean. Berde, lila, hori, granateak oihalak, bide amaigabeetako ibiltarien eskarmentuaz tindatutako soinekoak. Beso luzeak eta esku delikatuak libre uzten zituen.

Buruan, txirikordatu egiten zuen ile beltz luzea eta gehiengotan bekokitik atzera buruzapi urdin anila lotzen zuen, dotore, aldamen batean.

Banku berdeak, egurrezkoak, eta sahatsak Afrikako bere sorterraino eramanean ohi zuten, horregatik itzultzen zen iluntzero haraxe, etxera bezala.

Nik agurtu egiten nuen iluntzeroko osteratxoan haren ondolik pasatzen nintzenez, edo haren aurretik pasatzen nintzen bera agurtzearen. Hasieran ez zuen erantzuten, baina behin, buruaren goitik beherako mugimendu batek onartu ninduen eta irribarre bat zabaldu zitzaion ezpainetan.

Iluntze bete batean ondoan eseri nintzaion eta hurrengoan, eta harrezkero hurrengo guztietan.

Horrela jakinarazi zidan bere eguneroko erritoaren zergatia: sahatsari ura ematearekin batera, biziari eskerrak ematen zizkion eta babesa eskatzen; lurralde arrotzetan irudikatu ezin zuen gero hurbilerako babesa eskatzen zion.

Horrelaxe jakin nuen paperik gabeko izaki han-hemenkaria izendatua zela etorkin bulegoren batetan, edo bestela inor ez, inongo administrazioan.

Jakin nuen, hemengotar izan nahita ere, ez zuela tokirik aurkitzen arrapaladan eta erosi-eta-erosika bizi zen sistema

honetan. Ez zela paradisu, hain erakargarri saldu zioten gizarte tentatzaile bezain asebate hau; hutsa begiztaten zuela gutiziaz gainezkako gure lekua. Liluratu zuen liberekin aukera aienatua zela, iparrizarra hauts bilakatu eta bidea ilundu balitz bezala.

Eta neu ere, eskuratu ezinako eskaintzen atzetik, eta zorretan, eta ernega, eta ernegagarri sentitzen nintzen haren sosegua- ren ondoan.

Ikasi nuen bere izena: Guddi (*Gaua*, baol hizkuntzan) eta wolof herriaren lurraldeetatik zetorren emakume haren hizkuntzatik apur bat neureganatu nuen: *xarit (laguna)*, *xol (bihotza)* edo *geej (itsasoa)* bezalako esanak, eta guztiarekin batera beste mundu-mira bat.

Eta hasieran elkarren artean frantsesa erabili bagenuen ere, gero, euskaraz eta baolez baliatu ginen elkar ulertzetik harantzaxeago iristeko. Eta hizkuntzek hurbildu gintuzten senean.

Ulertu nuen jaioterritik urrunarazi zuen halabehar berberak itzularaziko zuela, urruti gabe: izan beharrak. Asmatu genuen adiskidetasuna esaten.

Bata bestearen ondoan, bizigura berean batera geundela bagenekien eta berbetan edo isilik, orduak eman genizkien izarrei.

Beti-beti dut gogoan, bere egurrezko ontzia eskaini zidan ilunabarra, nik erreka harri zulatua lepotik zintzilikatu nioneko ilargipe berean.

Negura orduko, sahatsa hosto gabetu zitzaigun eta, bero lekuetarako sortuak izan diren txoriak bezala, abiatu zen Guddi ere geriza emango zion sahats edo baobab loratuaren beste azpi baten bila.

Hain urruti.

Eta orain, sahats magaletako banku berde egurrezkotan eseritza atsegin dut udatan, eta biziaren sustraiak gozatzea baobab-ontzi biribiletara jasotako uretan.

**Karme Igartua**  
Idazlea

# Liburu elektronikoaren iraultza?

**Gutenberg-ek 1450ean inprenta asmatu zuenez geroztik, liburuen formatuak eta irakurketa ohiturek ez dute funtsean aldaketa handirik izan: papera, tinta eta orriak pasatzean irakurlearengan sortzen den plazer, jakin-min edo gogaitasuna, liburuaren arabera noski. Orain teknologia berrien eragina mundu honetara ere heldu da, liburu elektronikoaren eskutik. Hasiberria da iraultza, eta gutxi dira oraindik erabiltzaileak. Badira ere liburu elektronikoaren aurkari sutsuak, irakurketa era tradizionalaren alde egiten dutenak. Hona hemen liburu elektronikoaren munduan murgiltzeko hainbat gako.**

Internetekin, telefono mugikorrekin, CDekin, i-Podekin ere gertatu zitzaigun antzekorik. Hasieran tramankulu handiak zirenak zertarako erabiliko genituen arrastorik izan ez, eta azkenean gure bizitzaren parte bihurtu dira. Orain iraultza digitala liburuen mundura heldu da eta liburu irakurgailu elektronikoaren pantailatik keinuak egiten dizkigu. Agenda elektronikoa bat baino handiagoak diren gailu hauek ehunka liburu digital eta bestelako informazio osagarri asko (argazkia, hiztegiak, PDF artxiboak...) gorde daitezke. Fisikoki liburu baten tamaina, baina barruan liburutegi oso bat.

Duela urte batzuk agertu ziren lehen irakurgailuak, baina mugikorrekin gertatu zen bezala, handiak, garestiak eta deserosoak ziren. Erabiltzaileak kexu ziren, irakurketa liburu konbentzionalena baino zailagoa zelako: ordenagailu pantaila batean irakurtzeak bista nekatu egiten du, irudiak ñir-ñir egiten duelako eta argia pantailaren atzealdean sortzen delako. Paperean irakurtzea orain arte erosoagoa izan da tintak duen definizioagatik: inprimatutako orriaren 300 puntu hazbeteko injektatzen dira eta hasierako irakurgailu elektronikoetan pantailak 72 baizik ez zuen hartzen. Azken belaunaldiko irakurgailuek arazo hori gaingitu egin dute, tinta tradizionalaren definizioa eta sentsazioa irudikatzen dituen tinta elektronikoaren bidez.

## Liburuak saretik

Irakurleak atzera botatzen dituen desabantaila nagusienetakoa momentuz prezioa da: iRex DR 1000s modeloak 699 euro balio ditu, eta merkeenetakoa batek, Cybook 3 gen modeloak, 280 euro. Hala ere, formatu berriak abantaila asko ditu: liburutegi osoa edonon esku-eskura izateko aukera, irakurtzeko erraztasunak (letra tamaina handitu daitezke, ikusmen arazoak dituztenentzat audio-liburuak daude, notak egin daitezke, hitzak hiztegiaren kontsultatu...) eta gainera edukiak liburu konbentzionalak baino merkeagoak dira.

Edukiak saretik deskargatu daitezke eta dagoeneko hizkuntza batzuetan aukera zabala da. Liburu elektronikoa batek, adibidez García Marquezen *Relato de un naufragio* lanak 4,99 euro balio ditu. Jane Austenen lan osoak 17,85 eurotan eskuratu daitezke, eta Jules Verne-arenak 24,50 eurotan. Liburu



ru salduenak (gaztelaraz) –www.leer-e.es enpresa nafarra-  
ren webgunean– Dostoievskyren *Crimen y Castigo*, George  
Orwellen *1984*, Sun-tzu txinatarraren *El Arte de la Guerra*  
eta *Vox Advanced English-Spanish Dictionary* dira.

## Euskarazko edukien zain

Euskal irakurleentzako arazo nagusia euskarazko edukien falta da. Elkar liburu denda sareko Mikel Arrizabalagak azaltzen duenez, ez dago oraino irakurgailu elektronikoentzako euskarazko edukirik salgai merkatuan. Arrazoiak egile eskubideena izan daitekeela aipatzen du; izan ere, momentuz argitaratu diren gaztelarazko eta ingelesezko izenburu asko klasikoak dira eta ez dago beraz eskubide arazorik. Euskal idazle garaikideen lanekin ez litzateke berdin gertatuko.

Alberdania argitaletxeko Jorge Gimenezek, aldiz, beste arrazoi bat aipatzen du: “Irakurgailuetako edukiak enkriptatzea prozesu zaila eta garestia da eta merkatuan lan hori egiten duten plataforma eta sistema desberdinak daude. Sistema bakoitzak irakurgailu bat du eta baterako balio duenak ez du besterako balio”. Alberdania merkatu horretan egoera argitu zain dagoela dio Gimenezek, beti ere adi-adi, formatu berriaren zabalkundeak aldaketa handiak ekarriko dizkiolako sektoreari. Eskubideen kontua arazoa baino negoziatu beharreko pausu logikotzat du, bere ustez euskal liburu elektronikoaren etorkizuna “merkatu bizian” dagoelako, hau da, egungo idazleen lanetan eta ez klasikoaren liburutegi erraldoietan.





## Mikel Arrizabalaga

**Elkar Taldeko komunikazioburua**

### **Elkar dendetan salgai daude liburu-irakurgailu elektronikoak. Ze harrera izan dute? Ze mota eta prezio-koak daude?**

Elkar izan da espainiar estatuan irakurgailu elektronikoak eskaintzen lehen liburu denda sarea. Modu honetan, liburu eta irakurzaile direnzentzat aukera berri bat zabaldu da: liburutegi oso bat liburu bakar batean. Gure liburu denda sareak bi fabrikatzaile europarren liburu elektronikoak jarri ditu bere bezeroen eskuan: iRex Technologies holandar etxearen zortzi hazbeteko pantaila duen iLiad izenekoa (599e), eta sei hazbete dituen Booken Cybook frantziar dispositibo (280 ). Bi marken formatu desberdinetako irakurketa ahalbidetzen dute: Mobipocketez gain (liburu elektroniko hauek berezkoa dutena), PDFak, HTMLak, eta abar. Irakurtzeko dispositibo elektronikoak erostearekin batera, Elkar liburu denda sareak literatura klasikoaren ehun titulu dituen liburutegia oparitzen du. Hazka egin eta aktibatzeko kodea duten kupoi elektroniko batzuen bidez, liburu gehiago erosi ahal izango dira. Kupoi bakoitzak duen kodea erabiliz, sarean dauden titulu batzuk kargatu daitezke. Kupoi bakoitzak titulu batzuk ditu, autoreka edo gaika elkaturik.

Elkarren berrikuntza hau hasieratik eskaini nahi izan diegu gure bezeroei; beraz merkatuan zeuden aukeren inguruan hausnarketa egin ondoren, abiatzeko erabakia hartu genuen pasa den urtean eta orain arteko harrera ona izan dela esan dezakegu.

### **Ohiko liburuak desagertu egingo dira? Nola eragingo du horrek liburu dendetan?**

Gure ustez, ohiko paperezko liburu eta liburu elektronikoaren artean elkarbizitza bat emango da, ondorioz egungo liburu dendek egokitzapen prozesu bat izan beharko dute, berezkoa duten kultur topaleku funtzioan eta kultur edukien eskaintzan sakondu beharko baitute. Gure liburu dendek daukaten 30 urteko historian birmoldaketak une eta garai desberdinetan eman ohi dira eta euskarri berrien aurrean ere, dagoeneko lehen urratsa eman dugu liburu elektronikoak liburuzalearen esku jartzen hain zuzen ere. Aldaketa horiek guztiak noiz gertatuko diren zehaztea zaila gertatzen bazaigu ere, adi gaude.

### **Euskalduna bezain kultura txiki batentzat zer ekarriko du liburu elektronikoak?**

Zalantzarik ez dugu liburu elektronikoaren etorrerak eragina izango duela gurea bezalako kultura txiki batean, horregatik sektorean inplikaturik gaudenok (idazleak, argitaletxeak, banatzaileak...) erne egon behar dugu, bidea elkarrekin egin beharra daukagu, eta datozen erronkei aurre egiteko indarrak metatu.

Elkar Taldean (argitaletxeak barne) dagoeneko badago gai honen inguruan hausnarketarako bide bat irekita. Erabaki bat hartu aurretik, merkatuaren azterketa bat egin nahi dugu, garbi dugu

euskarazko merkatuak dauzkan ezaugarri eta berezitasunak kontuan hartuta euskarri batean egin edo bestean egin, aurre gogoeta bat eskatzen duela. Bide horretan bi alderdi hartu ditugu kontuan; alde batetik, alderdi teknikoak, oraingoz gehien garatu dena, eta bestetik, edukiei dagokien atala. Bigarren hori zenbait fasetan burutuko dela uste dugu, garatzeke dago eta Elkar Taldea osatzen dugunok datozen urteetan irekiko den merkatu berri horri begira jarri gara, argitaletxe handiek markatuko dituzten bide eta tendentziak jarraitzeaz gain, gure bide propioa eginez.



## Xabier Amuriza

**Sarean plazaratu du Orain ezin naiz hil lana**

### **Zer dela eta erabaki zenuen liburua Internet bidez argitaratzea? Horrelako esperientzien berri ba al zenuen zure inguruan?**

Aspaldi nerabilen ideia “rural” hori buruan. Alegia, azokan bezala, bitarteko gabe, bezeroekin zuzeneko harremana edo tratu izatea. Jeneroa eskutik eskura. Liburuetan, aukera hori Internetek ematen zuela ikusirik, neure pentsaera “rurala” aurrera eramatea pentsatu nuen, helbide honeguz: [www.amurizablog-xabier.com](http://www.amurizablog-xabier.com)

### **Zer nolako harrera izan du liburua plazaratzeko era berri honek? Irakurleek zer diotsue?**

Liburuaren harrera, sarrerak ikusita (6.100dik gora dagoeneko), ohikoa baino handiagoa izan da. Argi dago formatu tradizionalaren zale askok irakurtzeko era hori ez dutela erabili, batzuek adierazi didatenez. Baina argi dago ere, bestela, liburura hurbildu ere egingo ez zen asko sartu dela, eta liburua jaitsi duela.

### **Irakurleek aukera dute borondatea emateko webgunean agertzen den kontu korrontean. Zure esperientzia ikusita, bizimodua ateratzeko edo idazleek independentziaz liburuak plazaratzeko modua izan daiteke?**

Liburua doan jartzea beste “idealismo rural” bat izan da. Erantzuna ez da, noski, hortik “bizimodua ateratzeko” modukoa izan. Hamabost bat lagunek eman dute “borondatea”, liburuak balioko zukeena baino askoz gehiago aportatuz, batez beste. Guztira, 900 bat euro. Zerbait gehiago itxaroten nuen arren, mentalizaturik nengoen “idealismo praktikorik” ez dela existitzen berriro konprobatzeko.

### **Internetek komunikazioa aldatu du jada; liburu elektronikoek irakurtzeko modua aldatuko dutela uste al duzu?**

Dudarik gabe. Oraindik zail egiten zaigu liburuaganako fidelotasun edo “maitasun zaharra” haustea, baina hori denbora kontua da. Liburu elektronikoaren ahalbideak neurrigabeak dira formatu tradizionalaren aldean. Teknika egokitu eta eroso eskuratzea besterik ez da falta. Denbora laburreko kontua.



## **Ignacio Latasa** **Leer-e.es enpresako zuzendaria**

### **Zeintzuk dira liburu elektronikoen abantailak eta desabantailak?**

Teknologiari esker, tinta elektronikodun irakurgailuak irakurketa erraztu eta ikusmena ez nekatzeko diseinatuak dira. Atzean argiztapenik ez duenez, sentsazioa papera irakurtzearena da. Horrez gain, energia kontsumo baxua dute, arinak dira eta eramateko errazak. Letraren tamaina aldatzeko aukera ematen dute, hiztegiak dituzte eta papera balira bezala irakur daitezke, ñir-ñirrik gabe. Beste abantaila bat prezioa da: liburu elektronikoa paperezkoak baino merkeagoak dira, 2 eta 5 euro inguru. Eta ezin ahaztu ingurugiroaren hondatzea ekiditen dugula, paperik ez dugulako kontsumitzen.

Irakurgailu hauek asko irakurri eta bidaiatzen duen jendearentzat oso egokiak dira, gainean, uneoro eguneratu dezaketen dokumentazio asko eramateko aukera ematen dielako.

Desabantailei dagokienez, irakurgailuen prezioa aipa genezake, oraindik altua delako, baita izenburu falta ere, baina aukera epe laburrean handituko da.

### **Zuen webgunean edukiak ere eskaintzen dituzue: zeintzuk dira arrakastatsuenak? Ba al da euskarazko izenburu elektronikorik merkatuan?**

**www.leer-e.es** webguneko libururik salduenak *Palabras Mayores* egitasmokoak dira eta egile arrakastatsuenak Gabriel García Márquez, Eduardo Mendoza, Rosa Montero eta Juan Marsé. Momentuz ez dugu euskarazko izenburu elektronikorik, baina Leer-e enpresak euskal argitaletxe batekin negoziazioak oso aurreratuak ditu, aurten bertan euskarazko izenburu elektronikoa plazaratzen hasteko.

### **Liburu elektronikoen irakurketa tradizioanala alboratuko al dute?**

Ez dugu uste erabateko alboraketarik izango denik, baina argitaletxeek argi dute liburu elektronikoa euren negozioaren parte handia izango dela datozen urteetan eta denak ari dira aldaketara nola moldatu ikertzen. Gainera, Carmen Balcells bezalako idazle agente garrantzitsu batek *Palabras Mayores* egitasmoarekin liburu elektronikoen alde apustu sendoa egiteak argitaletxeek gaia oso kontuan hartzea ekarri du.



## **111 Akademia** **Irakurle elkarte**

### **Zer da 111 Akademia? Ze helburu ditu?**

111 Akademia euskal literaturazaleen akademia da, euskal literaturagintzan irakurleari protagonismo handiago bat emateko asmoz sortua. 111 Akademiak Euskal Herri osoko 129 kide ditu une honetan, eta akademiakide horien guztien lana bideratzeko **www.111akademia.com** webgunea ezinbestekoa da. Bertatik, akademiakideek sarirako botoa eman dezakete, urteko liburuen zerrenda kontsulta dezakete, irakurri dituzten liburuen gaineko iritziak bidal ditzakete, etab. Nabarmentzekoa da webgune horrek akademiakide ez diren euskal irakurleei zuzenduriko edukiak ere jasotzen dituela, hala nola, euskal literaturaren inguruko albisteak edo Euskal Herrian ospatuko diren literaturarekin loturiko ekintzen agenda.

### **Liburu elektronikoen irakurtzeko eran iraultza ekarriko omen dute. Probatzeko aukerarik izan al duzue? Zein abantaila/desabantaila dutela uste duzue?**

Irakurleak ditu ardatz 111 Akademiak. Irakurlea liburu bat hartu eta irakurketarekin gozatzea gonbidatzen dugu, gero egin duen irakurketa horren inguruko balorazioa eskatuz. Zentzu horretan, ez dirudi, hasiera batean behintzat, liburu elektronikoa, guztiz harrapatuta zauzkan eleberri batean orrialde bakoitza pasatzeak ematen duen sentsazioa hain erraz ordezka dezakeenik. Paperezko liburua eskuartean hartuta egiten den irakurketa badu irakurketa hutsetik haratago doan zentzu bat, irakurzalearentzat, behintzat. Irakurketarekin gozatzearen sentsazio horretan betiko liburua elektronikoen ginetik egon daitekeela uste dugu. Nolanahi ere, liburu elektronikoa bere bidea hasi baino ez du egin eta geroak esango digu zein tamainatan pizten duen belar-naldi berrietako irakurleen arreta. Ez dugu uste irakurketa klasi-koaren *xarma* izatera iritsiko denik...

### **Euskalduna bezalako kultura “txiki” batentzat positiboa izango al da berrikuntza hau?**

Liburu elektronikoen arrakasta edo porrota, euskal irakurleen erabileraren araberakoa izango da. Eta erabilerari hori euskal irakurleek teknologia berrien aurrean duten jarreraren baitan egon daiteke neurri batean. Garbi dago munduko beste kulturak horretara badoaz, euskaldunak ere bide hori jorratu beharko duela, gainontzekeengandik isolatuta geratu nahi ez badu behintzat, eta bide horretan aurrera egitea txarra denik behintzat ez genuke esango. Hori bai, paperezko libururik gabeko eguna urruti samar ikusten dugu.

**Begoña Miñaur**  
**Kazetaria**

# DUDANET zerbitzua, hizkuntza-kontsultak on line

IVAPek kudeatzen duen Duda-Muda zerbitzura sartu bazarete azken egunotan, seguru asko itxuraz erabat aldatuta topatuko zenuten. Eta ez itxura bakarrik, izena ere berria du: DUDANET. Uste dugu, horrela, hurbilago gaudela eskaini nahi dugun zerbitzutik: administrazio- eta lege-arloko terminologian eta hizkeran sor daitezkeen zalantzak argitzeko on lineko zerbitzua.

Bereziki hiru multzotan banatuko ditugu aplikazioaren berrikuntzak. Batetik, harpidetza sistema. Formulario baten bidez erabiltzaileek izena eman eta datu-basean geldituko dira erregistratuta. Bestetik, bilaketak egiteko modu berria.

Aldaketa garrantzitsu horren bidez, sisteman katalogatuta dauden fitxa guztiak kontsultatu ahal dira. Eta, azkenik, iradokizunak eta inkestak. Izan ere, DUDANET zerbitzu publikoa den aldetik, erabiltzaileak dira abiapuntu eta helmuga; horregatik, zuon iritzia ezagutzea biziki garrantzitsua da IVAPentzat. Azter ditzagun banan-banan DUDANET aplikazioaren funtsezko berrikuntza horiek, gainetik bada ere.

Hasierako pantailara iristeko nahikoa da IVAPeko web orrian ([www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)) sartu eta ikono hau sakatzea:




Pantaila hau agertuko zaizu:



## 1. Bilaketa

Ezkerreko menuan, *DUDANETen bilatu* aukera sakatuta, sisteman katalogatuta dauden fitxa guztiak kontsulta daitezke. Horren bidez, kontsulta bat egin aurretik, daukazun zalantza jada erantzunda dagoen ikusi ahal izango duzu. Gaia zedarritu nahi izatekotan, *Bilaketa aurreratu* aukeraren bidez, bilaketa-irizpide zabalagoak eskaintzen ditugu.





## 2. Lehenengo kontsulta egin eta izena eman

Kontsulta bat egin nahi baduzu, lehenengo pausua izena ematea da. Horretarako, ezkerreko menuan *Kontsulta bat egin eta izena eman* sakatu eta irudian duzun formularioa agertuko zaizu. Aste-risiko batez adierazita daude zein datu diren ezinbestekoak harpidetza egiteko.

*Identifikazio dok.* eremuan NAN zenbakia idatzi behar da, horrek aukera emango baituzu geroago ziurtagiri digitalen bidez sartzeko aplikazioan.

*Jaso jakinarazpenak* eremuaren bidez, kontsultei buruzko jakinarazpen guztien eta erregistratzeko kodeen berri emateko bidea aukeratu behar duzu: e-posta ala SMSa. Modu horretara, egindako kontsultei buruzko erantzunak aplikazioan aktibatzen diren bakoitzean, horren berri emateko oharra jasoko duzu.

Formularioa bete ondoren, sistemak erabiltzaile kodea eta pasahitza esleituko dizkizu. Erabiltzaile kodea sartutako identifikazio dokumentua izango da, eta pasahitza automatikoki sortuko du aplikazioak.

Behin urrats hori emanda, zure datuak erregistratuta geldituko dira eta ez dituzu berriro beharko DUDANET zerbitzua erabiltzeko. Hurrengoetan, *Erabiltzaile erregistratu eta sarbidea* loturaren bidez, datuen gune pribatura sartu ahal izango zara.

Egindako kontsulten erantzuna ikusteko, aplikazioan sartu eta ezkerreko menuko *Nire kontsultak* eremura jo beharko duzu. Bertan bistaritzen dira egindako kontsultak eta haien egoera.

## 3. Proposamenak eta inkestak

Esan bezala, gure erabiltzaile-izena eta pasahitzarekin eremu pribatu batera sartzen gara. Ezkerreko menuari erreparatu eta ohartuko zara kontsultak eta bilaketak egiteaz gain, zure proposamenak eta zure iritzia helarazi ahal izango dizkiguzula.

Proposamenen atalean, erabiltzaileek egokitzen dituzten iritziak eta proposamenak egin ahal izango dituzte, espazio eta mugarik gabe, atal hau finkoa baita aplikazioan.

Inkesta, aldiz, aldiro-aldi esekiko dugu webgunean, eta bertan zenbait galdera jarriko dugu emandako zerbitzuari buruz duzun iritzia jasotzeko.

Espero dugu aplikazio berri hau lanabes eraginkorra izatea zure eguneroko lanean, sor dakizkizukeen zalantzak argitzen laguntzeko. Asmo eta ilusio horrekin diseinatu dugu. Beraz, zuk erabiltzea besterik ez da geratzen.

**Administrazio Hizkeraren atala**

# Elikadura eta emozioak

**Gaur egun munduko herri aurreratuenetan elikaduraren inguruko gaixotasunak ugari-tu egin dira: anorexia, bulimia, betekada konpultsiboak eta, gero eta gehiago, gizenta-sun morbidoa. Gizentasun mota hori AEBtan “epidemiatzat” jotzen dute jadanik. Horrez gain, biztanle askok argaltzeko dietak etengabe erabiltzen ditu, gero eta gehia-go dira janarien gaineko kezka eta kexak, gorputza lantzeko ariketak eta kirurgia operazioak... Gorputza gurtu, landu, zaindu eta neurria galtzen dugunean, oreka apur-tu eta gaixotu egiten gara.**

Elikaduraren gaineko informazio ugari agertzen da aldizka-ri, telebista eta egunkarietan; sarritan, kontraesanean. Olioia, esne gaingabetua, ogia eta beste produktuei buruzko eztabai-dak sortzen dira, produktu ekologikoen kontsumoa ere gora doa... Informazioa uholdeka daukagu eta sarritan gaitzena zera izaten da: garrantzitsua eta egia dena bereiztea multzo handi horretan.

Gure bizimodua aldatu den neurrian gure jateko modua ere arin aldatu da. Psikologok elikadura aztertzen dugu; ez bakarrik aipatutako gaixotasunetan, kasu guztietan baizik. Pertsona batek zer, noiz, nola jaten duen: horrek bere bizi-moduaren ikuspuntu bat ematen digu. Gosaltzen al duzu? Zer? Zutunik edo jesarrita? Egunero fruta hartzen al duzu? Astero? Bakarrik ala familian afaltzen duzu? Telebista piztu-ta egoten da horrelakoetan? Gure inkestari esker datu baliagarriak lortzen ditugu, eta tratamenduan elikadura osasuntsua lortzea parte garrantzitsua izaten da. Bitaminak, mineralak, antioxidatzaileak, aminoazidoak, olioak, eta abar jaten ez ditugunean, gorputza eta gure gogoa eta psike guz-tia baxu ibiltzen da edota haserrekor bilakatzen da.

Horrez gain, inkesta horri esker, nork bere gorputza eta osotasuna nola zaintzen duen jakingo dugu. Sarritan, pisu gorakadak eta beherakadak eta jakien aldaketak ugariak izaten dira kontsulta psikologikoen daten inguruan.

Denontzat, elikadura eta emozioak guztiz lotuta daude egu-neroko bizitzan. Urduri gaudenean, jateko gogo handiago izaten dugu. Asetzea gaitza suertatzen da horrelakoetan, eta, batez ere, karbohidrato ugari jatekoak bilatzen ditugu: ogia, gailetak, txokolatea... Herstura egoera batean, gorpu-tza “potentzia osoan” dabil eta, beraz, azukrea arin behar dugu odolean; horregatik karbohidratoak bilatzen ditugu, kimikoki azukre arina bilakatzen direlako urdailean. Joera horren ondorioz, pertsona asko gizendu eta loditu egiten dira arazoan aurrean; beste batzuek, aldiz, pisua mantendu edo galdu egiten dute.

Urduritasuna sakonagoa bada, eta izu eta larritasun bilaka-tzen bada, jangartxu gaude, goragalearekin, eta “urdaile itxi-ta” sentitzen dugu. Horrelakoetan, gorputza potentzia osoan dabil eta, kotxeen modura, gehiago erretzen du; baina, jate-koa (gure gasolina kopurua) ez badugu indartzen, astebetean 2-5 kilo galdu ahal dira; gorputza ahuldu eta herstura sinto-mak areagotu egiten dira, eta gaixotasun zikloa pizten da.

Hori dela eta, ikasleek azterketetan, eta ikasle ez garenok den-boraldi larrietan, ondo zaindu behar ditugu gure elikaduraren bulkadak oinarritzko elikagaien falta ez izateko, zeren gure gorputzak 1 Formula auto baten moduan erretzen baititu eli-kagaiak horrelakoetan. Ez zaigu falta behar C bitamina, fruta eta barazkietan; magnesio, zink eta kobrea, txokolate beltz eta fruitu lehorretan; eta omega 3 olioia, arrain urdinetan!

Aspertuta gaudenean mokaduak jaten ditugu. Emozio nega-tiboen nahastea izaten dugu horrelakoetan: aspertzea, kezka, lasaitasun falta... eta jatekoak lasaitu egiten gaitu. Pentsa-menduaz sukaldean zer daukagun errepatatzen dugu behin eta berriro etxean gaudenean, eta bidaiatxoak egiten ditugu mokaduen bila... Egunez eta batzuentzat gauez ere eman daiteke joera hori. Eta normala da izatez. Arazo bilakatu ahal da gure jateko gehiena mokaduka jaten badugu, jatorduak galtzen eta, beraz, oreka galtzen dugulako, edota pisu gehie-gi irabazten dugulako...

Triste gaudenean sarritan jateko gozoak nahi ditugu. Haur jaioberriek, ugaztun guztiek bezala, txiki-txikitatik ikasten dute batera doazela elikadura eta amaren babesa, maitasuna eta lasaitasuna. Ugaztunek elikadura prozesuan ikasi dute lehen erlaxatze naturala. Jatea lasaigarria da, eta janari goxo-ak (txokolatea, esnekiak...) gure garunean serotonina sor-tzen laguntzen du, poztasunaren neurotransmisorea, hain zuzen.

Orain dela urte batzuk Suedian eginiko inkesta batean egu-neroko bizitzako ekintza pozgarrienak ikertu zituzten. Bidaiatzea, irakurtzea, familia eta lagunaren artean egotea espero zen lehenengoak izatea. Ikertzaileen harridurarako, lo egitea eta esnekiak jatea izan ziren gailendu zirenak!

Osasunak, elikadurak eta emozioek, beraz, lotura estua eta garrantzitsua dute. Jatea eta maitasuna pertsonen oinarritzko beharrak dira. Eta janariak gure gorputzaren behar biologi-koak asetzen ditu, baina desioak, bizimodua eta sentimen-duak ere elikadurari lotuta daude. Jateko modua batzuetan konpultsiboa izaten da. Zer esan nahi du horrek? Oso denbo-ra gutxian jaki kopuru handia jaten dugula, sarritan ahoan sartu eta segituan irensten, ia ia murtzikatu gabe. Zergatik gertatzen zaizkigu horrelakoak? Batzuetan, ingelesez *craving* deritzoguna sortzen delako. Behar diren baino ordu gehiago jan barik gaudenean, gorputzak odolean daukan azukre kopurua jaitsi egiten da. Hasierako beherakada horre-



tan lehenengo galtzen duguna arreta mantentzeko gaitasuna da. Garuneko neuronak oso bereziak dira eta glukosa behar dute lan egiteko. Glukosa euren gasolina denez, depositua hutsik dagoenean neuronek ezin dute lana ondo egin, eta arreta mantentzea da neuronen lan espezializatua. Gosariaren garrantzia handia da, beraz, lan intelektuala egiten dugunontzat, gazte zein heldu.

Jatordu bat galtzen dugunean, edo jatordu artean denbora luzee-gia suertatzen denean, glukosa bilatzaile bilakatzen gara, glukosa ehiztari. Hurrengo jatorduan, etxera bueltatzen garenean, edo jakia gure esku dagoenean, gehiago jango dugu, arinago eta karbohidrato ugariago emango diguna. Jateko modu konpulsiboan momentu zehatz baten gertatzen bazaigu, harriduraz esango dugu “Gehiegi jan dut, ezin nuen gelditu...”. Zoritxarrez, jatorduen bat salto egiteko joera hartzen dugunean, eta horrez gain herostura momentu luze bat bizi dugunean, edota gure jatekoa oreka gabe eta presaka (prestatzeko erreza dena, jaki prestatuak...) egiten dugunean, lehenago aipaturiko prozesuak pilatu egiten dira eta gaixotasun bilaka daitezke: bulimia; gizentasuna; bitamina, olio zein aminoazido urritasunak, eta abar.


Ondo jatea beharrezkoa da fisikoki eta psikologikoki osasuntsu egoteko. Egunero entzuten dugu gure inguruan pisua mantentzeko jatekoa zaindu behar dugula. Baina hori baino gehiago da. Elikadura gure gogoaren oreka mantentzeko behar dugu. Gure energiaren iturri kimikoa jatekoa da. Horrela, gaizki janez gero, gure energia kopurua jaitsi egingo da. Ohitura txarrekin aurrera jarraitzen badugu, gaixotu ere egin gaitezke, desorekatuak kimikoki eta gogo aldetik. Ditugun arazoei aurre egiteko energia eta indar gutxiago izango dugu. Gure begietan, eta gure pentsamen-

duan ere arazoak handiago ikusiko ditugu, herostura eta tristezia areagotuko zaizkigu. Gaur egun, psikologok badakigu emozioak zaintzeko elikadura zaindu behar dugula, elkarrekin lotura aberatsa, zirkularra, baitute.

Alabaina, euskaldunok ondo dakigunez, ez gara soilik elikatzen jateko gogoia asetzeko. Tripak zaratatsu dabiltzanean jan egiten dugu, baina baita atsegin dugulako ere: lagun artean egoteko, lasaitasuna bilatzeko, urduri gaudelako, aspertuta gaudelako... Gure inguruan, osasun publikoaren eraginez, mezu ugari ditugu osasunaren eta elikaduraren arteko loturak azpimarratzeko. Baina, beste arlo askotan gertatzen den moduan, sarritan, informazio ugarietan ez dakar gure jokabidea zuzena izatea. Elikagaiak aukeratzea, jaten duguna antolatzea, gure elikadura, gizakion jokabide konplexua da. Eta, dakigunez, Psikologia jokabidea aztertzen duen zientzia da. Artikulu honetan eragin batzuk aztertu ditugu, baina elikaduraren azterketa psikologikoa beste faktore askok ere hartzen dute parte: jakien itxura, usaina eta zaporea, janaria prestatzeko trebetasun oinarrizkoa izatea, ikastea eta erabiltzea, gizarte zehatz baten dauden ohiturak, gustatzen zaigunaren eta ez zaigunaren menpean bizitzea, bakarrik ala norbaitekin bizitzea, jakien inguruko sinesmenak (produktu ekologikoak, transgenikoak...), arrazoi erlijiosoak eta ekonomikoak, norbere buruaren pertzepzioak (osasuna zaintzeko trebeziak eta sinesmenak), eta abar. Beraz, elikadurak eta emozioek eragin sakona daukate prozesu horren ondorio eta zergatietan.

**Arantza Quecedo**  
Psikologoa





**Web 2.0. El usuario el nuevo rey de Internet**  
**Nafria, Ismael**  
**Bartzelona, 2008**  
**416 or.**

Liburuaren lehenengo edizioa 2007koa da eta dagoeneko laugarrena merkatuan dago. Horrek ematen du argitalpen honen arrakastaren neurria. Dena den, ez da erraza webari buruz aritu eta *déjà vu* sententziarik ez izatea. Honen moduko argitalpenek duten beste arrisku bat, -ez txikia, horratio- da Interneten izaera bera, esan nahi baita, hain da aldakorra, hain doa abiada bizian, ia-ia ezinezkoa baita mugimendu hori guztia paperera ekarri eta finkatzea.

Bada, arrisku eta aurreiritzi horiek guztiak gainditu eta liburu ederra jarri digu begien aurrean Ismael Nafría kazetari eta idazleak.


Publiko zabal baten galderei erantzuteko, gai asko jorratzen ditu egileak, denak teknologiaren eta Web 2.0ren testuinguruan: Web 2.0ren historia, definizioa eta protagonistak, audientzia eta publizitatea, enpresaren tokia web sozialaren eremuan, Web 2.0ren eragina kazetaritzan eta hezkuntzan, oinarrizko hiztegia, eta abar.

Publiko zabala esan dugu, Ismael Nafriak publiko bat baino gehiago hartu baitu kontuan edukiak zehazteko orduan. Batetik, gaiak zerbait entzun eta gehiago sakondu nahi duen irakurle "arruntak" ditugu. Eta bestetik, lanean Web 2.0 inguruneak ekarri dituen zalantzak argitu nahi dituzten arloko profesionalak: kazetariak, irakasleak, enpresariak edo kudeatzaileak.



**Hiztegi terminologikoak**  
**Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordea**  
**Vitoria-Gasteiz, 2009**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) aurkeztu berri du Terminologia Batzordeak 2008an egindako lanaren emaitza: 20 hiztegi terminologiko berri. Hasiera batean, lehendabiziko sei hiztegi aurkeztu badituzte ere, laster gainerrako guztiak EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoan egongo dira integratuta, [www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net) helbidean. Hiztegi gehienak sozio-ekonomia esparrukoak (merkataritzak eta kontsumoa) badira ere, beste hainbat arlotakoak ere aurki ditzakegu; esaterako, Irakaskuntza (Lanbide Heziketa, Unibertsitatea), Teknologia Berriak, Herri-administrazioa edota Laburtzapenen Hiztegia.




**Curso de Redacción. Teoría y Práctica de la Composición y del Estilo**  
**Martín Vivaldi, Gonzalo**  
**Madrid, 2008**  
**540 or.**

Gonzalo Martín Vivaldiren lanaren 33. argitalpen berritua dugu honako hau. Ezinbesteko liburua erredakzio egoki bat lortu nahi badugu edota kazetaritzako hainbat ikasgaitan sakondu nahi izanez gero, baita hizkera zehatza lortzeko zein kazetaritzako hainbat teknika menderatzeko ere.

Hauek dira liburuaren edukiak:

Lehenengo kapituluak gramatika kontuetan sakontzen du: puntuazioa, preposizioak, gerundio egokiak eta desagokiak, pasiboaren gehiegizko erabilera, besteak beste. Bigarrenak argitasunak eta ordenak duen garrantzia azpimarratzen du: ideien eta hitzen ordena, kohesioan testu markatzaileen garrantzia... Hirugarrenean, hizkera argi eta zehatzaren indarra aztertzen da: ideien eta hitzen errepikapenak ekiditeko teknikak... Laugarrenak, hizkuntzaren dotoretasuna eta idaztearen artea zaintzeak duen balioa: esamoldeak, estiloaren orijinaltasuna... Eta azkenik, bosgarren kapituluak testugintzaren inguruko teknikak eskaintzen dizkigu: deskribapena, biografia, eskutitza, laburpen teknikak...

Liburua erabat praktikoa da; ongi idatzi nahi duen edonorentzat, beraz, kontsulta liburu lagungarria.



**Bat. Soziolinguistika aldizkaria, 70. zk.**  
**Soziolinguistika Klusterra**  
**Andoain, 2009**  
**164 or.**

Soziolinguistika Klusterrak BAT aldizkariaren 70. zenbakia kaleratu du. Zenbaki honek hainbat ekarpen bildu ditu "Euskararen Legeak" izenburupean. Ekarpene horiek 2008an Udako Euskal Unibertsitatearekin batera antolatutako "Euskararen Legeak: Esperientzia Praktikoak eta Aukerak" ikastaroan jaso ziren. Ikuspegi ezberdinetatik aztertzen da euskararen errealitate administratibo eta juridikoa.

Besteak beste, Erramun Osak idatzitako "Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen 123/2008 Dekretua. Hizkuntza aukera berdintasuna eta askatasuna oinarri" artikulua irakur daiteke. Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko araubide juridikoari (Iñaki Agirreazkuenaga) eta euskarak enpresetan bizi duen egoerari buruzko artikulua (Mikel Irizar). Hauxe gain, "Gurean" atalean, "Hizkuntza-hazkundera Interneten" (Vicent Partal) edota Lionel Jolyren artikulua bat daukagu. Azkenik, "Liburu-aipamena" atalean Andoni Barreñaren *El futuro de las lenguas* lanaren iruzkina.

# Che-ren kapilauarena



Javier Arzuaga naiz, Euskal Herrian jaioa. Kuban nengoen orain dela 50 urte, Iraultzak irabazi zuenean. Habanako Casablancako parrokoa nintzen eta bertan zegoen La Cabañako kanpamendua, Batistaren aldeko armadako kideak eta polizia preso eduki zituzten lekua. 800-900 bat preso ere bai, 300 lagunentzako etzalekuak zeudenean...

1959ko lehenengo sei hilabetean egon nintzen La Cabañan, Che Guevara zelarrik bertako komandante. Otsailetik uztaile-ra bitarte, 55 lagun fusilatu zituzten han. Heriotza orduan preso haien ondoan egotea izan zen nire lana. Behin edo behin neure *karroan* (autoan) eraman nituen fusilamendu tokira...

Iraultzak irabazi orduko jakin nuen gorriak ikusiko nituela Casablancako parroko izanik. Berehala zabaldu zen La Cabaña izango zela atxilotze gunea, bertan egingo zirela epaiketa eta fusilamenduak. Gurutze horixe eraman behar izan nuen, ez nuen beste erremediorik izan, parroko bakarra nintzen-eta han. Heriotzara kondenatuak lagundu, beste bizialdi horretarako *semaforo berdea* piztu behar nien...

1959ko urtarrilaren 6an, La Cabañako komandante Che Guevarari joan nintzaion: “Mesede eske natorkizu, Komandante. Tropari meza esaten segitu nahiko nuke, eta presondagian dauden atxilotuak laguntzen”. Cheren erantzuna: “Lehenengo eskaerari dagokionez, erantzuna da ezetz. Amaitu dira hemen horrelako kontuak. Bigarrena, jakin ezazu zeinek duen Santa Barbarako kaperako giltza, hori bai, zurea da, lana emango dizugu, eta handia gainera”. Eta egia esan, lan handia izan nuen.

Kasu sonatu asko izan ziren La Cabañan. Esaterako, Jesus Sosa Blancorena. Ez nuen ezagutu Kirol Jauregian epaitu zuten eguna arte. Epaitu? Aitzinetik kondenatuta zegoen, Pedro Molejon eta Luisi Cardo Graurekin batera. Fidel Castrok Santiagon lehenengo hitzaldia egin zuenean garbi esan zuen: “Hiru horiek fusilatu egingo ditugu!”.

Preso artean nembilela ikusi nuen Sosa Blanco. “Kristauak Erromako zirkora bezala eramango naute!”, zioen. Nik, esan nion: “Gaur arratsaldean zure ondoan izango naiz epaiketatan”. Eta epaiketatan, Sosa Blanco ez zen isildu: “Erromako zirkora da hau. Bai, jendea hil nuen, baina borrokan, tiroka ari zitzaizkidan eta tiroka eraso nien nik ere. Elkar akabatzen ari ginen”. Niretzat, okerreana, zera jakitea zen, epaiketa aitzinetik ere hiru morroi haiek kondenatuta zeudela. Eta, ikusgarriena, epaiketara eraman zuten lekuko andana, 1957ko urriaren 12ko gauean ikusi zutena azal zezaten, esan zezaten Sosa Blanco Sierra Maestrara heldu zela, gerrillariak enboskatu zutela eta bere burua defenditu zuela. Lekuko *guajiro* haietako batzuk La Cabañan izan ziren epaiketara baino lehen, esan behar zutena ikasten. Niri zeharo dramatikoak iruditu zitzaizkidan haiek ikustea, nola diktatzen zieten esan behar zutena. Alabaina, Dacosta izeneko abokatu bat izan zuten aurrean, eta honek egoera irauli zuen, ulertzen ez zuten lege hizkeran galdezka hasi zitzaizkidan, orro egin zienean:

“Esan! Esan berriz, ozen, garbi!”. Eta lekukoak urduri, zer erantzun ere ez zuten jakiten, eta fiskalak ere urduri. Penagarria izan zen, *guajiro* gizajoez prestatzen jardun zuten, baina zepoan harrapatu zituzten, abokatuaren hitzontzikeriari aurre egiteko gaitasunik ez eta. Orduantxe, kito epaiketa. Fidel Castroren deia. Raul Castro, Ernesto Che Guevara eta Camilo Cienfuegosekin batera ari zen showa ikusten, eta ez zitzaizkidan batere gustatu ikusten ari zirena. Epaiketa bertan behera utzi zutenean La Cabañara joateko hots egin zidaten. “Fusilamenduak?”, galdetu nuen. Ez zekitelera erantzun zidaten. Heriotzera kondenatu hirurak –epaiketa burutu gabe izanagatik ere–, La Cabañara heldu ziren. Gau hartan bertan estreinatuko zen heriotza korridorea.

Epaiketatik itzulirik Sosa Blancorekin topo egin nuenean besoetara etorri zitzaizkidan, isilik. Handik pixka batera esan zidan: “Aita, erreza dezagun!”. Eta hasi ginen, poliki-poliki, nik lehenengo eta berak ondoren: “Aita gurea, zeruetan zerana...”, horrela bi eta hiru aldiz, egunsentia etorri arte. Eta ez dakit zer izan zen harrezkero. Han, heriotza ez baina bizia zen nagusi. Ez dakit nola azaldu ere.

Sosa Blanco fusilatzeko garaia heldu zenean, bainatzen uzteko eskatu zuen. Ondoren, arropa garbia eta zapata berriak jantzi zituen, artean estreinatu gabe etxean zeuzkan oinetako handiak, Sosa Blanco zapata-handia zen eta. “Aita, mesede bat eskatu nahi dizut: fusila nazatenean, erantzi niri zapatak eta eman bihar bertan Casablancan edo Habanan fortunatzen zaizun lehenengo behartsuari. Ez esan norenak izan ziren, Sosa Blancorenak izan zirela jakiten badute, beharbada ez dituzte-eta ibili nahiko”. Nik, hark agindu zidan bezala egin nuen. Hil zutenean, zapatak erantzi eta parean gertatu zitzaizkidan lehenengo pobreaki eman.

Horrela, Sosa Blancok eta bere oinetakoek Habanako kaleetan oinez segitu zuten, Fidel Castro eta haren jarraitzaileei iseka eginez, iratxo batek egingo lukeen moduan...

Javier Arzuaga naiz, Che Guevararen kapilaua izan nintzen La Cabañan 1959ko lehenengo sei hilabetean, presoak laguntzen, denbora horretan fusilatu zituzten 55 lagun ondoan. Ondoren, urte bat gehiago igaro nuen Kuban gazteekin lanean. Horretan ari nintzen, aita hiltzen ari zitzaizkidan Espainiatik abisua jaso nuen arte. Espainiara itzuli eta, bertan nengoela, ez nuela Habanara itzultzeko baimenik jakinarazi zidaten. Hantxe eten zen Kubarekin izan nuen harreman fisikoa.


Ez nintzen inoiz itzuli.

**Miel A. Elustondo**  
Idazlea

# Hitz gezidunak

	Gela zain- tzen du	Zerrendak	Akabatu	Duda partikula	Jardun
	Txapelketa	Toka, zaitut	Kimuak	Bokala	
	Kanpo			Erbioa	
	Hutsarte			Gizon izena	
IRUDI KO KIROLA	Aukeratu			Bokala	
Zuhurtzia	Ipar, apartak			Saila	
Eskaini eta ez eman			K birritan	Ardi, hitz elkarketan	
Pl., gerra tresna			Errep., gorotza	Hegazti mota	
Bururatu			Trebea, iaioa		
Plangintza		Libre	Gor	Alkohol bukaeran	
		Aluminioa		4. eta 1. bokalak	
			Oxigenoa	... hartu, lokartu	
			Bokala	Kontso- nantea	
Sorginen jaia					Bokala

## Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da

- Lore usaintsuak.
- Erraz sartzen da.
- Ez du entzuten, gorra.
- Amildegi, haitzarteko hutsune.
- Garai, aldi.
- Gipuzkoako ibaia.
- Patua, asturua.
- Intsektu mota.
- Zigarreta.

## Soluzioak

⊛	A	R	I	⊛	T	A	L	K	A
O	T	E	⊛	A	R	T	A	L	⊛
A	K	E	⊛	U	N	A	⊛	L	⊛
⊛	A	D	A	S	K	A	B	E	L
Z	I	N	T	A	K	A	S	O	R
⊛	H	A	U	T	⊛	K	A	⊛	A
G	E	L	A	R	I	⊛	A	⊛	L
⊛	L	⊛	H	U	T	⊛	A	⊛	L
			⊛	H	U	T	A	K	⊛
			⊛	F	U	T	A	⊛	⊛
			⊛	Z	⊛	O	⊛	P	⊛

**H - i - t - z   g - e - z - i - d - u - n - a - k**

**Goitik behera**

1. Arrosak. 2. Sankor. 3. Sorra.  
4. Arro. 5. Aro. 6. Oria.  
7. Zoria. 8. Zorria. 9. Zigarro.





**Liburu hau hemen  
duzu salgai:**

**IVAP**  
HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

**Unibertsitateko etorbidea z/g  
20600 Oñati  
Tel.: 943 782 000  
Faxa: 943 783 177  
[argitalpenak-ivap@ivap.es](mailto:argitalpenak-ivap@ivap.es)**



**IVAP**  
HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

# Jabetza intelektualari buruzko jardunaldiak

2009ko azaroaren 3-4a

Europa Jauregia. Vitoria-Gasteiz